



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko azaroaren 3a

118. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

- Foru Lege proiektua, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina hein batean aldatzen duena. Artikuluei aurkeztutako zuzenketak (3. or).
- Foru Lege proiektua, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legea hein batean aldatzen duena. Artikuluei aurkeztutako zuzenketak (9. or).
- Foru Lege proiektua, Ondarearen gaineko zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legea hein batean aldatzen duena. Artikuluei aurkeztutako zuzenketak (20. or).
- Foru Lege proiektua, hein batean aldatzen dituen Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren xedapenak biltzen dituen Testu Bategina, apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia, Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legea eta Kooperatiben zerga araubidea arautzen duen ekainaren 21eko 9/1994 Foru Legea. Artikuluei aurkeztutako zuzenketak (23. or).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Jabeldura, Nafarroako Gobernuako lehendakariak egindako adierazpenari buruzkoa, zeinaren arabera Euskarari buruzko legea Estatu-auzi edo Estatu-politika baita. Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (28. or).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, Legebiltzarrak onetsitako erabaki bati buruzkoa. Erabaki horrek Nafarroako Gobernuia premia-tzen du diziplina anitzeko azterlan bat egitera, aztertze aldera zer arrazoi zehatz egon litezkeen Nafarroan erretiratutako salaketen kopurua hain handia izateko. María Victoria Arraiza Zorzano andreak egin du (29. or).

- Galdera, Erljio Heziketa ikasgaiko irakasleei zuzenduriko “Familia eta bizitza” izeneko mintegiaren deialdiari buruzkoa. Marisa De Simón Caballero andreak egin du (30. or).
- Galdera, Nafarroako Aurrezki Kutxan ustelkeriari buruzko zenbait datu azaltzeari buruzkoa. Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak egin du (31. or).
- Galdera, jakitekoa zer ekintza urgente egingen duen Nafarroako Gobernuak, Esako urtegia handitzearen ondorioz kaltetutako nafar herritarren segurtasuna defendatzeko. Víctor Rubio Martínez jaunak egin du (31. or).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

**Foru Lege proiektua, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina hein batean aldatzen duena.**

**ARTIKULUEI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina hein batean aldatzen duen Foru Lege proiektuaren artikuluei aurkezturiko zuzenketa. Proiektu hori 2014ko irailaren 11ko 97. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2014ko urriaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**1. ZUZENKETA**

**MANU AYERDI OLAIZOLA ETA  
PATXI LEUZA GARCÍA**

FORU PARLAMENTARI JAUNEK AURKEZTUA

Zazpi atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Foru Lege proiektuaren ordezkotako testuko zio orokorretan jasotakoak, eta zio horiekiko koherente izatearren.

**2. ZUZENKETA**

**NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK  
AURKEZTUA**

25. artikuluari buruzko Zazpi atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Nafarroako Gobernuak alokairuaren sustapena defendatu badu ere, proiektuan sustapen hori murrizten duten neurriak jasotzen dira; gainera, horrek ondorio ez-desiragarriak ekar ditzake, ezkutuko ekonomia areagotzearena esate baterako.

**3. ZUZENKETA**

**NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK**

AURKEZTUA

39.5.b) artikuluari buruzko Hamalau atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Neurri horrekin, jarduteko gaitasuna murrizten zaie 65 urte baino gehiagokoei etxebizitzarena bezain gai garrantzitsu batean, eta, arreta-behar eta egokitzapen-gaitasun handiagoa sor daitekeen etapa batean, ez du biderik uzten egoera soziofamiliar berriei aurre egin eta horietara moldatzeko.

**4. ZUZENKETA**

**BILDU-NAFARROA ETA  
ARALAR-NAFARROA BAI**

PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

54.1. artikulua aldatzen duen Hogeita hiru atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Iruditzen zaigu kapital-errenten zergapetze-mailak lan-errenten zergapetze-mailara hurbildu behar lukeela, eta aldaketa hau justu kontrako norabidean doa. Bestalde, higiezinaren burbuilaren ondorioek, Nafarroako herritarrek oraindik ere denbora luzez pairatu beharko dituztenak, zalantzan jarrarazten dute egokia ote den, lege proiektuaren zioen azalpenean argudiatzen den moduan, aurrezpena gauzatzeko modu desberdinen neutraltasun fiskala bilatu behar ote den.

**5. ZUZENKETA****MANU AYERDI OLAIZOLA ETA  
PATXI LEUZA GARCÍA**

FORU PARLAMENTARI JAUNEK AURKEZTUA

Hogeita hiru atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Foru Lege proiektuaren ordezkotestuko zio orokorretan jasotakoak, eta zio horiekin koherente izatearren.

**6. ZUZENKETA****BILDU-NAFARROA ETA  
ARALAR-NAFARROA BAI**

PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

54.2.a) artikulua aldatzen duen Hogeita lau atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Hogeita hiru atala kentzeko zuzenketa-  
ren ondorio da.

**7. ZUZENKETA****MANU AYERDI OLAIZOLA ETA  
PATXI LEUZA GARCÍA**

FORU PARLAMENTARI JAUNEK AURKEZTUA

Hogeita lau atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Foru Lege proiektuaren ordezkotestuko zio orokorretan jasotakoak, eta zio horiekin koherente izatearren.

**8. ZUZENKETA****MANU AYERDI OLAIZOLA ETA  
PATXI LEUZA GARCÍA**

FORU PARLAMENTARI JAUNEK AURKEZTUA

Hogeita sei atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Foru Lege proiektuaren ordezkotestuko zio orokorretan jasotakoak, eta zio horiekin koherente izatearren.

**9. ZUZENKETA****BILDU-NAFARROA ETA  
ARALAR-NAFARROA BAI**

PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

55.5. artikulua aldatzen duen Hogeita zazpi atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Eztabaidagarria bada Gizarte Segurantzaren kuotak erabiltzea likidazio-oinarria murrizte-

ko, murrizketa horiek soldataren parte bat sartuz handitzeak ez du justifikaziorik.

**10. ZUZENKETA****NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK  
AURKEZTUA**

Hogeita zazpi atalean, 55.5. artikulua a) letrari beste lerrokada bat gehitzeko zuzenketa.

Beste lerrokada bat gehitzen da. Hona:

“3 urte edo gutxiagoko ondorengo kasuan, Gizarte Segurantzaren kotizazio-oinarriaren zenbatekoaren ehuneko 25 aplikatuko da”

Zioak: Familia eta lana bateratzen laguntzen duen neurria.

**11. ZUZENKETA****NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK  
AURKEZTUA**

Hogeita zazpi atalean, 55.5. artikuluari azken lerrokada bat gehitzeko zuzenketa.

“Aurreko kasuetan, familia ugariak Gizarte Segurantzaren kotizazio-oinarriaren zenbatekoaren ehuneko 25 aplikatuko dute”

Zioak: Familia ugariak eta adineko pertsonak artatzen laguntzen duen neurria.

**12. ZUZENKETA****IZQUIERDA-EZKERRA  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

59.1 artikuluari buruzko Hogeita hamaika atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Zerga-tasak aldatzeko egiten den proposamenak eragin negatiboa izanen luke diru-bilketan, eta, uneotan, zailtasun larriak daude gastu eta inbertsio publikoak finantzatzeko.

Era berean, proposatutako erreforma bereziki onuragarria da errentarik altuenak dituztenentzat.

**13. ZUZENKETA****BILDU-NAFARROA ETA  
ARALAR-NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA**

Hogeita hamaika atala aldatzeko zuzenketa.  
Honako testua izanen du:

Hogeita hamaika. 59.1. 1 artikulua. Likidazio-oinarri orokorrari ondoko eskalan adierazten diren karga-tasak aplikatuko zaizkio:

Zerga-oinarria zenbateraino (eurotan)	Kuota osoa (eurotan)	Oinarriaren soberakina zenbateraino (eurotan)	Aplikatzekoa den tasa (ehunekoa)
		3.825	13,00
3.825,01	497,25	4.674	22,00
8.499,01	1.525,53	9.027	25,00
17.526,01	3.782,28	13.279	28,00
30.805,01	7.500,40	14.675	36,00
45.480,01	12.783,40	7.927	42,50
53.407,01	16.152,38	34.593	45,00
88.000,01	31.719,23	37.000	47,00
125.000,01	49.109,23	50.000	49,00
175.000,01	73.609,23	125.000	51,00
300.000,01	137.359,23	Hortik gora	52,00"

Zioak: Errentarik baxuenak izan direnez jardun-bide publikoak gehien kaltetu dituenak aurreko urteetan, hala arlo fiskalean nola gizarte-prestazioenean, errenta horien egoera fiskala arintzea proposatzen da, egoera ekonomikoak zerga-gutxitze handiagoetarako aukera ematen duen arte, zeinak, nahitaez, lan-errenta txikiak dituztenetan bildu behar baitira.

**14. ZUZENKETA****IZQUIERDA-EZKERRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

59.1 artikuluari buruzko Hogeita hamaika atala aldatzeko zuzenketa.

Proiektuko zerga-tasen taula beste taula honekin ordeztea:

Likidazio-oinarria zenbateraino (eurotan)	Kuota osoa (eurotan)	Oinarriaren soberakina zenbateraino (eurotan)	Aplikatzekoa den tasa (ehunekoa)
		3.825	13
3.825	497,25	4.674	22
8.499	1.525,53	9.027	25
17.526	3.782,28	13.279	28
30.805	7.500,40	14.675	36
45.480	12.783,40	7.927	42,5
53.407	16.152,37	34.593	45
88.000	31.719,22	37.000	47
125.000	49.109,22	175.000	49
300.000	134.859,22	Hortik gora	52"

Zioak: Proposatzen dugun taula progresiboa-goa da, eta arindu egiten du proiektukoak diru-bilketan izanen duen eragin negatiboa.

**15. ZUZENKETA****IZQUIERDA-EZKERRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

60. artikuluari buruzko Hogeita hamahiru atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez gatoz bat kapital-errentei aplikatzen zaizkien zerga-tasak murriztearekin.

**16. ZUZENKETA****BILDU-NAFARROA ETA  
ARALAR-NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA**

Hogeita hamahiru atala aldatzeko zuzenketa.  
Honako testua izanen du:

“Hogeita hamahiru. 60 artikulua.

'60. artikulua. Aurrezkiaren likidazio-oinarri bereziaren karga-tasa. Aurrezkiaren likidazio-oinarri bereziari ondoko eskalan adierazten diren karga-tasak aplikatuko zaizkio:

Zerga-oinarria zenbateraino (eurotan)	Kuota osoa (eurotan)	Oinarriaren soberakina zenbateraino (eurotan)	Aplikatzekoa den tasa (ehunekoa)
		10.000	20,00
10.000,01	2.000	8.000	24,00
18.000,01	3.920	Hortik gora	30,00"

Zioak: Kapital-errenten zergapetzea arinagoa izateak erregresibotasun-faktore bat eransten dio zergari, eta hori konpontzen joan beharra dago.

**17. ZUZENKETA****NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK  
AURKEZTUA**

Hogeita hamahiru atalean beste artikulua bat gehitzeko zuzenketa. Hona artikulua:

“60. bis artikulua. 0,7aren laukitxo: Eliza edo gizarte-helburuak.

Zergadunak aukeran izanen du kuota osoaren ehuneko 0,7 Eliza Katolikoa eustera bideratu, gizarte-helburuetara bideratu, aukera biak hautatu, edota bietako bat ere ez. Horretarako, kasuan kasuko laukitxoak erabili eta markatu beharko ditu.

Zergadunak laukitxo biak markatuta espresuki adierazten duenean Eliza Katolikoa eta gizarte-helburuak hautatu dituela, horietako bakoitzari kuota osoaren ehuneko 0,7 emanen zaio”.

Zioak: Koherentzia eta arauen argitasuna. Nafarroak PFEZari buruzko legean zehaztu gabe dauka nola banatu 0,7a, eta, gainera, Espainiakoz bestelako irizpide bat aplikatzen du batera markatzen direnean Eliza Katolikoaren eta gizarte-helburuen laukitxoak. Horrelakoetan, Nafarroak ehuneko 0,7a zati bi egiten du, eta 0,35 bideratzen du helburu bakoitzera; Estatuan, aldiz, batera zein bestera ehuneko 0,7 bideratzen da.

**18. ZUZENKETA****NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK  
AURKEZTUA**

62. artikuluari 13. idatz-zatia gehitzeko zuzenketa.

Hona:

“Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboek, baldin eta diru-ekarpenik egin badute zailtasunetan dauden enpresatzat hartuta dauden entitateen akzio edo partaidetzak eskuratzeko entitate horien kapital-zabalkuntza batean, eta ekarpena egitean enpresa horiek gutxienez ere bost langile badituzte, diru-ekarpen horren ehuneko 40ko kenkaria egiten ahalko dute”.

Zioak: Enpleguari eusten laguntzea.

**19. ZUZENKETA****MANU AYERDI OLAIZOLA ETA  
PATXI LEUZA GARCÍA  
FORU PARLAMENTARI JAUNEK AURKEZTUA**

Hogeita hamasei atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Foru Lege proiektuaren ordezkotako testuko zio orokorretan daude jasota; horiekin koherente izatearren.

**20. ZUZENKETA****MANU AYERDI OLAIZOLA ETA  
PATXI LEUZA GARCÍA  
FORU PARLAMENTARI JAUNEK AURKEZTUA**

Hogeita hamazazpi atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Foru Lege proiektuaren ordezkotako testuko zio orokorretan daude jasota; horiekin koherente izatearren.

**21. ZUZENKETA****BILDU-NAFARROA ETA  
ARALAR-NAFARROA BAI  
PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA**

Berrogeita zortzigarren xedapen gehigarria gehitzen duen Berrogeita lau atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: 59.1 artikuluko eskalari aurkeztutako zuzenketarekin, ez da beharrezkoa.

**22. ZUZENKETA****IZQUIERDA-EZKERRA  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Berrogeita lau atala kentzeko zuzenketa. Berrogeita zortzigarren xedapen gehigarria gehitzea.

Zioak: 2015erako proposatzen den zerga-tasen aldaketak eragin negatiboa izanen luke diru-bilketan, eta, uneotan, zailtasun larriak daude gastu eta inbertsio publikoak finantzatzeko.

Era berean, proposatutako erreforma bereziki onuragarria da errentarik altuenak dituztenentzat.

**23. ZUZENKETA****MANU AYERDI OLAIZOLA ETA  
PATXI LEUZA GARCÍA****FORU PARLAMENTARI JAUNEK AURKEZTUA**

Berrogeita lau atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Foru Lege proiektuaren ordeko testuko zio orokorretan daude jasota; horiekin koherente izatearren.

**24. ZUZENKETA****IZQUIERDA-EZKERRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Berrogeita lau atala aldatzeko zuzenketa. Berrogeita zortzigarren xedapen gehigarria gehitzea.

Proiektuko zerga-tasen taula beste taula honekin ordeztea:

Likidazio-oinarrria zenbateraino (eurotan)	Kuota osoa (eurotan)	Oinarriaren soberakina zenbateraino (eurotan)	Aplikatzeko den tasa (ehunekoa)
		3.825	13
3.825	497,25	4.674	22
8.499	1.525,53	9.027	25
17.526	3.782,28	13.279	28
30.805	7.500,40	14.675	36
45.480	12.783,40	7.927	42,5
53.407	16.152,37	34.593	45
88.000	31.719,22	37.000	47
125.000	49.109,22	175.000	49
300.000	134.859,22	Hortik gora	52

Zioak: Proposatzen dugun taula progresiboagoa da, eta arindu egiten du proiektukoak diru-bilketan izanen duen eragin negatiboa.

**25. ZUZENKETA****UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Bat atala aldatzeko zuzenketa. Atal horrek testu bateginaren 7. artikulua arautzen du. Proposatzen den aldaketak n) letrari soilik eragiten dio.

Bat atala. 7. artikulua.

"n) Atzerrian egindako lanengatik jasotzen diren lanaren etekinak, ondoko baldintza hauek betetzen baldin badira:

Lehena. Lan horiek Espainian egoitzarik ez duen enpresa edo entitate batentzat edo atzerrian finkatutako establezimendu iraunkor batentzat egitea, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzetan. Bereziki, lan horiek hartuko dituen entitatea langilearen entitate enplegatzailearekin edo langileak bere zerbitzuak ematen ditueneko enpresarekin lotua badago, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 29. artikuluan aurreikusitako baldintzak bete beharko dira.

Bigarrena. Lanak egiten direneko lurraldean zerga hau bezalako edo antzeko beste zerga bat aplikatzea eta zerga paradisutzat jotzen den herrialde edo lurralde bat ez izatea. Baldintza hau betetzen dela ulertuko da lanak egiten direneko herrialde edo lurraldeak Espainiarekin hitzarmena badu nazioarteko zergapetze bikoitza saihesteko eta hitzarmen horrek informazioa trukatzeko klausularik badu.

Atzerrian egon bitartean sortutako ordainsariei aplikatuko zaie salbuespena, urtero 61.000 eurori gehienez. Erregelamenduz ezarri ahalko da egun bati dagokion diru-zenbateko salbuespena kalkulatzeko prozedura.

Atzerrian aritzen diren subjektu pasiboan kasuan, salbuespen hori ez da bateragarria izanen zerga ordaintzetik salbuespenaren soberakinen araubidearekin (zerga honi buruzko erregelamenduari 8.A).3.b) artikuluan dago ezarria), haren zenbatekoa edozein izanda ere. Subjektu pasiboak zilegi izanen du salbuespen honen ordeko soberakinen araubidea aukeratzea.

Salbuespen hau ez zaie mugetako langileei aplikatuko".

Zioak: zuzenketaren helburu bakarra da 7. artikuluko n) letrari azken lerrokada bat gehitzea, honela dioena: "Salbuespen hau ez zaie mugetako langileei aplikatuko".

7. artikuluko n) letrak arautzen ditu egiazki atzerrian eginiko lanengatik eskuraturiko lan-etekinak PFEZetik salbuestearen nondik norakoak, baldintza batzuk betetzen direnean (besteak beste, lanak atzerrian egitea eta egoiliar ez den enpresa edo entitate batentzat) eta 61.000 euroko gehieneko mugarekin.

Printzipioz, onura fiskal horren helburua da nafar enpresen nazioartekotzearen alde jokatzeko eta atzerrian nafar langileen mugikortasuna erraztea; hori guztia, atzerrian lanak egite aldera nafar enpresek lekualdaturiko langileei laguntzearen.

Alabaina, salbueste horren aplikazioan eta kudeaketan lortu den eskarmentuak posible egin

du zuzendu beharrekoak diren disfuntzio batzuk azaleratzea. Zehazki, salbueste hori "mugetako langile" deritzenei aplikatzeari dagokionez.

Horretarako, ezinbestekoa da "mugetako langile" kontzeptua esplikatzea. Ekonomia eta Ogasun kontseilariak emandako 59/2011 Foru Aginduak, apirilaren 13koak, jadanik argitzen du indarrean mantentzen duela zerak, errentaren eta ondarearen gaineko zergen arloan Espainiako Erresumaren eta Frantziako Errepublikaren artean zergapetze bikoitza ekidite eta ihes eta iruzur fiskala prebenitze aldera sinaturiko hitzarmenari atxikiriko protokoloaren 12. atalak, hitzarmen horren 15.4 artikuluan ezarritakoa. 15.4 artikuluko horri jarraituz, mugetako langileek, baldin eta beren izaera hori frogatzen badute, soldatengatik eta arrazoi horrengatik eskuratzen dituzten bestelako ordainsariengatik zergak ordaindu beharko dituzte egoitza duten Estatu kontratugilean bakarrik.

Mugetako langileei buruz Espainiak eta Frantziak 1961eko urtarrilaren 25ean sinaturiko akordio osagarriaren arabera (1962ko martxoaren 21eko Estatuko Aldizkari Ofiziala), mugetako langiletzat hartuko dira Espainiako eta Frantziako pertsonak, halakoak non, egoitza estatuetako bateko mugaldeen edukita –bertara egunero itzultzen direlarik, printzipioz–, beste estatuko mugaldeen soldatapeko gisa lan egiten duten. Mugalde dira, printzipioz, mugaren alde batera zein bestera hamar kilometroko sakonera dutenak, eta akordio horri eranskin bezala gehitu zitzaion Espainiako eta Frantziako mugaldeen barnekotzat jotzen diren udalerrien zerrenda.

Aurreko hori gogoan izanik, konpli da ohartaraztea ezen Nafarroak Frantziarekin duen mugaldeen bizi den langile batek, Frantziako mugaldeen kokaturiko enpresa batera lanera egunero joaten dena eta egunero ere Nafarroako mugaldeen kokaturiko bere etxebizitzara itzultzen dena, Nafarroan bakarrik ordaindu beharko dituela zergak, Espainiako Erresumaren eta Frantziako Errepublikaren arteko hitzarmen indardunean ezarritakoari jarraikiz, zeinaren xedea baita errentaren nahiz ondarearen gaineko zergen alorrean zergapetze bikoitza saihestea eta ihes eta iruzur fiskala prebenitzea. Nafarroarekiko zergapetze eskusibo hori 7. artikuluko n) letra aipatuko salbuestearekin lotzen bada, alegia, atzerrian egindako lanengatik eskuraturiko lan-etekinak PFEZetik salbuestearekin, argiro deduzitzen da langile horrek ez duela zergarik ordaintzen ez Frantzian (zergapetze bikoitzari buruzko hitzarmenaren indarrez) ez eta Nafarroan ere (PFEZari buruzko testu bategineko aipaturiko 7.n) artikuluko salbuestearen indarrez).

Disfuntzio hori zuzentzeko, araudiaren espirituekin bete-betean kontrajarririk baitago, xedatzen da 7.n) artikuluko salbuestea ez zaiela mugaldeko langileei aplikatuko. Horrek posible egiten du aurreko lerrokadako adibideko langileak zergak Nafarroan ordain ditzala, begi-bistakoa baita 7. artikuluko salbuesteak jomuga nagusizat Nafarroako enpresaren nazioartekotzea behar duela izan.

Halaber zehaztu beharrekoa da Gipuzkoako Lurralde Historikoak lege-xedapen hori bera ezarri duela antzeko egoerak onbideratzeko.



## **Foru Lege proiektua, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legea hein batean aldatzen duena.**

### **ARTIKULUEI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legea hein batean aldatzen duen Foru Lege proiektuaren artikuluei aurkezturiko zuzenketak. Proiektu hori 2014ko irailaren 11ko 97. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2014ko urriaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

#### **1. ZUZENKETA**

**MANU AYERDI OLAIZOLA ETA  
PATXI LEUZA GARCÍA**

**FORU PARLAMENTARI JAUNEK AURKEZTUA**

Hiru atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Foru Lege proiektuaren ordezkotestuko zio orokorretan jasotakoak, eta zio horiekin koherente izatearren.

#### **2. ZUZENKETA**

**MANU AYERDI OLAIZOLA ETA  
PATXI LEUZA GARCÍA**

**FORU PARLAMENTARI JAUNEK AURKEZTUA**

Hamaika atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Foru Lege proiektuaren ordezkotestuko zio orokorretan jasotakoak, eta zio horiekin koherente izatearren.

#### **3. ZUZENKETA**

**NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK  
AURKEZTUA**

40.1 artikuluari buruzko Hamasei atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: epea 15 urtetik 10 urtera murriztu izana ez da ez justifikatu, ez arrazoitu.

Neurriak, lege proiektuan planteatu den moduan, eragin negatiboak izanen ditu enpresen jardueran, krisiak gehien kaltetu dituen sozietateetan bereziki.

#### **4. ZUZENKETA**

**BILDU-NAFARROA ETA  
ARALAR-NAFARROA BAI**

**PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA**

Hamasei atala aldatzeko zuzenketa.

40. artikulua. Likidazio-oinarri negatiboen murrizketa.

“1. Zerga-oinarri positiboa murrizten ahal da, aurreko lau urteetan amaitu ziren zergaldietako likidazio-oinarri negatiboekin. Aurretik, bidezkoa den likidazioa edo autolikidazioa beharko dute likidazio oinarri negatibo horiek”

Zioak: Sozietateen gaineko zergaren bidez Nafarroan bildutako diru kopuruak modu ikusgarrian egin du behera azken urteotan (2009an 410 milioi bildu ziren, eta, aldiz, Gobernuaren 2014rako aurrekontu proiektuan, 166 milioi euro biltzea zegoen aurreikusita). Gainera, 2008. urtetik aurrera, sozietateen gaineko zergaren bidez bildutakoak gero eta pisu txikiagoa izan du zerga sisteman. Diru-bilketaren jaitsiera krisiarekin eta jardun ekonomikoaren moteltzearekin lotu bada ere, ez da ahaztu behar zerga honek zenbait erreforma izan dituela eta horiek diru-bilketarako gaitasuna asko ahuldu diotela.

Kontabilitate-ikuspuntu zorrotz batetik, oinarri likidagarri negatiboak konpentsatzea kreditu fiskal bat dira. Oinarri likidagarri negatiboak zerga-oinarri positiboekin konpentsatzeko epea luzatzen joan izanak eragin du kreditu fiskal hori gero eta handiagoa izatea, halako moduz non zama pisu bat bihurtu den Nafarroako Ogasunarentzat.

Kompentsatzeko epea –hala oraingoa nola lege proiektuan proposatzen dena– handiagoa da Administrazioak bere egiaztapen- eta ikerketan egiteko duen epe baino –lau urte–, eta, beraz, beharrezkoa da epe hori antzekoa izatea, problemarik ez dadin egon preskribatutako epeetako oinarriak konpentsatzen direlako edo preskribatutako epeetako kenkariak aplikatzen direlako; hori horrela, uste dugu erreformak, atal honetan, problema horiei erantzun behar diela. Ez da utzi behar preskripzio-epea baina haratago joaten, segurtasun juridikoaren printzipioarekin koherenteak izatearren.

**5. ZUZENKETA****MANU AYERDI OLAIZOLA ETA  
PATXI LEUZA GARCÍA**

FORU PARLAMENTARI JAUNEK AURKEZTUA

Hamazazpi atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Foru Lege proiektuaren ordezkotako testuko zio orokorretan jasotakoak, eta zio horiekin koherente izatearren.

**6. ZUZENKETA****NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK  
AURKEZTUA**

41.1 artikuluari buruzko Hamazazpi atala kentzeko zuzenketa.

Portzentaje hori ehuneko 60koa izanzen da enpresa txiki izaera duten subjektu pasiboentzat eta ehuneko 65ekoa mikroenpresa izaera duten subjektu pasiboentzat, hogeita hemezortzigarren xedapen gehigarriaren 2. idatz-zatiarekin bat.

Zioak: Proiektuak kanpoan uzten ditu enpresa txikiak, indarrean den arauaren moduan. Aldi berean, zuzenketaren bidez, mikroenpresak portzentaje handiago batekin saritzen dira.

**7. ZUZENKETA****MANU AYERDI OLAIZOLA ETA  
PATXI LEUZA GARCÍA**

FORU PARLAMENTARI JAUNEK AURKEZTUA

Beste atal bat gehitzeko zuzenketa: Hamazazpi ter. Hona testua:

“Hamazazpi ter. 2015eko urtarrilaren 1eko eraginekin, indarririk gabe uzten dira abenduaren 30eko 24/1996ko Foru Legearen 42. artikulutik 47. artikulura, biak barne.

Zioak: Foru Lege proiektuaren ordezkotako testuko zio orokorretan jasotakoak.

**8. ZUZENKETA****IZQUIERDA-EZKERRA  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Hemezortzi atalean, 50. artikuluari 1. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Nafarroan Espainiako estatuko sozietateen gaineko zerga-tasa orokor baxuena onestearrekin ez gatoz bat.

**9. ZUZENKETA****BILDU-NAFARROA ETA  
ARALAR-NAFARROA BAI**

PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

Hemezortzi atala aldatzeko zuzenketa.

“50. artikulua. Zerga-tasak.

1. Ondokoak izanzen dira karga-tasa orokorrak:

a) Ehuneko 28.

b) Ehuneko 24, enpresa txikientzat.

Enpresa txikitat hartuko da ustiapen ekonomiko bat gauzatzen duena eta honako baldintza hauek betetzen dituena:

a') Aurre-aurreko zergaldian izan duen negozio zifraren zenbateko garbia hamar milioi euro baino gutxiagokoa izatea.

Enpresa sortu berria bada, negozio zifra hori kalkulatzeko, jarduera benetan gauzatu den lehenbiziko zergaldia hartuko da aintzat. Aurre-aurreko zergaldia urtebete baino gutxiagokoa izan bada edo jarduera hori urtebete baino gutxiagoan gauzatu bada, negozio zifraren zenbateko garbia urtea osatu arte luzatuko da.

Delako enpresa sozietate talde bateko kidea bada (Merkataritza Kodearen 42. artikulua definitzen duen bezala), negozio zifraren zenbateko garbia talde horren kide diren sozietateen multzoa aintzat hartuta kalkulatu da. Irizpide hori bera aplikatuko da baldin eta pertsona fisiko bat, bera bakarra edo ahaide dituen beste pertsona fisiko batzuekin elkar hartuta (ahaideak lerro zuzenekoak nahiz aldamenekoak izan, odol bidezkoak nahiz ezkontza bidezkoak, bigarren graduraino, bigarrena barne), kide dituen beste entitate batzuekiko Merkataritza Kodearen 42. artikulua aipatzen dituen kasuetako batean gertatzen bada.

Enpresak jarduera-adar nahiz enpresa-ondare osoa eskuratu badu, entitate eskuratzailaren negozio zifraren zenbatekoa zehazteko, entitate eskualdatzailaren zenbateko hori bera gehituko zaio, edo zergaldi horretan jarduera-adarrari zego-kiona.

b') Aurreko a') letran adierazitako baldintza betetzen ez duten entitateek ez izatea enpresaren ehuneko 25etik gorako partaidetza, ez zuzenean, ez zeharka, salbu eta kapital-arriskuko Funtsak edo Sozietateak badira edo enpresak sustatzeko sozietateak, eta partaidetza entitate horien xede soziala betetzearen ondorioa bada.

Ez dira inolaz ere enpresa txikitat joko Espainia eta Europako interes ekonomikoko elkarrean

eta aldi baterako enpresa elkartearen arabide berezipeko entitateak.

Hala ere, b) letran xedatutakoa gorabehera, enpresa txikiaren izaera badu, aurre-aurreko ekitaldiko negozio-zifraren zenbateko garbia milioi bat eurokoa edo gutxiagokoa izan denean karga-tasa ehuneko 20koa izanen da. a') azpiletran adierazitako kasuetan, milioi bat euroko zifra hori taldeko entitate guztiek osatzen duten multzoari aplikatuko zaio. b') azpiletraren kasuan, onartuko da entitatearen partaidetzaren ehuneko 25 baino gehiago aurre-aurreko ekitaldian milioi bateko edo hortik beherako negozio-zifra garbia izan duten entitateek izatea, dela zuzenean dela zeharka.

2. Honakoek ehuneko 21eko zerga-tasa ordainduko dute:

a) Aseguru orokorretako mutuek, gizarte aurreikuspeneko entitateek eta Gizarte Segurantzaren lan istripuetako eta eritasun profesioaletako mutuek, beren araudiak ezarritako beharkizunak betetzen badituzte.

b) Elkarrenganako bermedun sozietateek eta birfidantzamendu-sozietateek, zeinak Elkarrenganako Bermedun Sozietateen Arabide Juridikoari buruzko martxoaren 11ko 1/1994 Legean baitaude araututa; Espainiako Bankuaren erregistro berezian inskribatuta egon behar dute.

c) Kredituko sozietate kooperatiboek eta kutxa ruralek, emaitza kooperatiboez kanpo dagokienez izan ezik, tasa orokorra ordainduko baitute.

d) Lanbide elkargoek, enpresaburuaren elkarteak, ganbera ofizialek eta langileen sindikatuek.

e) Irabazi asmorik gabeko entitate eta erakundeak, baldin eta legezko ordezkariak karguetan aritzen direnak doan aritzen badira eta dagokion organoaren aurrean erantzun behar badute, entitate horiek ez badituzte betetzen Fundazioen eta Babes Jardueren Tributu Arabidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legean ezarritako tributu arabideaz baliatzeko baldintzak.

f) Enplegua sustatzeko funtsek, Birmoldaketa eta Berrindustrializazioari buruzko uztailaren 26ko 27/1984 Legearen 22. artikulua babesean sortutakoak.

Kooperatiben batasun, federazio eta konfederazioek.

3. Honakoek ehuneko 15eko zerga-tasa ordainduko dute:

a) Zerga arloan babestuak dauden sozietate kooperatiboek, kooperatibatik kanpoko emaitzei dagokienez izan ezik, emaitza horiei artikulua

honetako 1. idatz-zatian aipatutakoaren arabera dagokien tasa orokorra aplikatuko baitzaie.

b) Martxoaren 24ko 4/1997 Legeak araututako lan-sozietateek, baldin eta lortzen dituzten mozkinen ehuneko 25 sartzen badute gutxienez ere Erreserbako Funts Berezira, salbu sozietatearen jardura berariazkoei atxikirik ez dauden ondare-elementuetatik ateratzen diren errentei dagokienez, horiei artikulua honetako 1. idatz-zatian aipatutakoaren arabera dagokien tasa orokorra aplikatuko baitzaie.

Hala behar izanez gero, kontabilitatearen emaitza negatiboa denean eta oinarri likidagarria positiboa, ehuneko 17ko zerga-tasa aplikatuko da."

4. Ehuneko 10eko tasa ordainduko dute, Fundazioen eta Babes Jardueren Tributu Arabidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/996 Foru Legean ezarritako zerga arabidea edukitzeko beharkizunak betetzen dituzten entitateek.

5. Honakoek ehuneko 1eko zerga-tasa ordainduko dute:

a) Kapital aldakorreko inbertsio-sozietateek, Inbertsio Kolektiboko Instituzioei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legeak arautzen baititu, baldin eta eskatutako akziodunen kopurua, gutxienez ere, aipatutako legearen 9. artikuluko laugarren idatz-zatian ezarritakoa bada.

b) Aipatutako legean ezarritako finantza izaera-ko inbertsio-funtsek, baldin eta eskatutako partaideen kopurua, gutxienez ere, aipatutako legearen 5. artikuluko laugarren idatz-zatian ezarritakoa bada.

c) Lege horretan araututako ondasun higiezineta-ko inbertsio-sozietatek eta ondasun higiezineta-ko inbertsio-funtsek, hurrengo d) letran aipatzen direnak ez bezalakoak direnak, betiere eskatzen den akziodunen edo partaideen kopurua, gutxienez, lege horren 5. eta 9. artikuluetako laugarren idatz-zatietan aurreikusitakoa baldin bada, eta, inbertsio kolektiboko erakunde ez-finantzarioak izanik, beren helburu eskusiboa edonolako hiri ondasun higiezinetan inbertitzea baldin bada, gero errentan emateko.

Zenbaki honetan aurreikusitako karga-tasa aplikatzeko beharrezkoa izanen da aurreko lerroaldean aipatutako inbertsio kolektiboko erakundeak aktiboa osatzen duten ondasun higiezinak ez besterentzea eskuratzen direnetik gutxienez hiru urte igaro arte, non eta Balore Merkatuaren Bartzorde Nazionalak, salbuespen gisa, berariazko baimena ematen ez duen.

Ondasun higiezin horiek c) letran ezarritako gutxienerako epea baino lehen eskualdatuz gero, eskualdaketa horren ondoriozko errentari zergaren karga-tasa orokorra aplikatuko zaio. Gainera, entitateak, ondasuna eskualdatzen den zergaldiko kuotarekin batera, beste zenbateko bat ere ordaindu beharko du, hots, c) letran aurreikusitako araubidea aplikatu behar zen zergaldi bakoitzean higiezinari dagozkion errentei honako hau aplikatzearen ondoriozkoa: kasuan kasuko zergaldian indarra zuen karga-tasa orokorraren eta ehuneko 1eko tasaren arteko diferentzia, deusetan galarazi gabe bidezko diren berandutza interesak, gainkarguak eta zehapenak.

c) letra honetan ezarritakoa aplikatuko da, bakar-bakarrik, sozietatearen estatutuetan dibidenduak ez banatzea ezarrita badago.

d) Ondasun higiezinetak inbertsio-sozietateak eta ondasun higiezinetak inbertsio-funtsek (azaroaren 4ko 35/2003 Legean arautzen direnak), c) letran aipatzen diren betebeharez gain, bakar-bakarrik errentan jartzeko etxebizitzak sustatzen badituzte eta baldintza hauek betetzen badituzte:

Lehenengoa. Ondasun higiezinetak inbertsioek, ondasun higiezinak sustatzeko jarduerari lotuak badaude, ezin gaindituko dute ondasun higiezinetak inbertsio sozietate edo funtsaren aktibo osoaren ehuneko 20.

Bigarrena. Ondasun higiezinak sustatu eta errentan jartzeko jardueran kontabilitate bereizia eginen da eskuratu edo sustaturiko ondasun higiezin bakoitzeko. Beharrezkoa den xehaketa eginen da, hura zatiturik dagoeneko etxebizitza, lokal edo erregistroko finka bakoitzari dagokion errenta ezagutzeko, c) letran aurreikusirik portzentajeari dagokionez aktibo osoko inbertsioak kontatu beharra deusetan galarazi gabe.

Ondasun higiezinetak inbertsio sozietate edo funtsek sustapenaren ondoriozko ondasun higiezinak errentan emanda edo eskainita eduki beharko dituzte zazpi urtez gutxienez. Epe hori eraikuntza bukatzen den egunetik aurrera kontatuko da. Ondorio horietarako, higiezinaren eraikuntzaren bukaera frogatuko da obrako azken ziurtagiriaren bidez, Eraikuntzaren Antolaketari buruzko azaroaren 5eko 38/1999 Legearen 6. artikuluan xedatu bezala.

Ondasun higiezin horiek d) edo c) letran ezarritako gutxienerako epea bukatu baino lehen eskualdatuz gero, eskualdaketa horren ondoriozko errentari zergaren karga-tasa orokorra aplikatuko zaio. Gainera, entitatea beharturik egonen da ondasuna eskualdatu zueneko zergaldiko kuotarekin batera honakoa ordaintzera: d) letra honetan aipatzen

den araubidea aplikatzekoa zeneko aurreko zergaldi bakoitzean ondasun higiezinaren errentei zergaldi bakoitzean indarra zuen karga-tasa orokorraren eta ehuneko 1eko tasaren arteko aldea aplikatuz ateratzen diren kopuruak, deusetan galarazi gabe berandutza korrituak, errekaruak eta bidezko diren zehapenak.

Ondasun higiezinetan inbertitzeko sozietate eta funtsek, etxebizitzak errentan emateko sustatuz gero, halaxe jakinarazi beharko diote zerga administrazioari, jarduera hori hasten den zergaldian.

e) Hipoteka merkatua arautzeko funtsek, Hipoteka Merkatua arautzeari buruzko martxoaren 25eko 2/1981 Legearen 25. artikuluan ezarria.

6. Ekainaren 8ko 8/1987 Legeak arautzen dituen pentsio-funtsek ehuneko 0ko zerga-tasa ordainduko dute."

Zioak: Sozietateen gaineko zergari buruz orain indarrean den testuak duen tasen eskemari eusten zaio, baina jaitsiera bat proposatzen dugu, hurbilaz eginen dituen beste neurri batzuekin batera— enpresen etekinei aplikatzen zaion zerga-tasa nominala eta erreala. Jakina denez, zerga-tasa nominalaren eta errealen arteko alde hori gertatzen da doitze segida luze eta nahasi bat egin behar izaten delako, lehenbizi emaitzan, halako moduz non murriztu egiten baita zerga-oinarria, eta gero, berriz, kuota osoan, kenkari sail handi baten bidez. Zerga-oinarriko murrizketek eta kuotako kenkariak ingeniarietza fiskaleko jardunbide nahasi bat osatzen dute, eta jardunbide horrekin amaitu beharra dago, zerga, horrela, sinpleagoa izan dadin. Gobernuaren erreforma-proposamena motz gelditzen da; izan ere, % 20ko zerga-tasa orokor bat ezartzean zentratzen da, baina kenkari sail handi bati eutsita, halako moduz non, berriro ere, zerga-tasa nominala eta erreala alden egingen diren.

## 10. ZUZENKETA

**MANU AYERDI OLAIZOLA ETA  
PATXI LEUZA GARCÍA**

FORU PARLAMENTARI JAUNEK AURKEZTUA

Hemeretzi atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Foru Lege proiektuaren ordezko testuko zio orokorretan jasotakoak, eta zio horiekin koherente izatearren.

**11. ZUZENKETA****NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK  
AURKEZTUA**

51 artikuluari buruzko Hemeretzi atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Proiektuak planteatzen du indarreko legean ez dagoen gutxieneko tributazio bat. Enpresentzat ez oso neurri fiskal egokia izateaz gain, araubide komuneko sozietateentzat ezarritako baldintzak baino murriztaileagoa da.

**12. ZUZENKETA****BILDU-NAFARROA ETA  
ARALAR-NAFARROA BAI  
PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA**

Hemeretzi atala aldatzeko zuzenketa.

“51. artikulua. Kuota osoa, kuota efektibo eta gutxieneko zerga-ordainketa.

1. Kuota osoa izanen da likidazio-oinarriari karga-tasa aplikatzen den zenbatekoa.

2. Kuota efektibo izanen da titulu honen II., III. eta IV. kapituluetan aurreikusitako hobari eta kenkarien zenbatekoan kuota osoa murriztetik ateratzen den zenbatekoa. Kuota efektibo ezin izanen da inola ere negatiboa izan.

3. Subjektu pasiboari 50. artikuluan 1. eta 2. idatz-zatiko a) eta b) letretako zerga-tasa orokorren arabera tributatzea dagokienez, eta zerga-oinarriari murrizketak aplikatzen dituztenean inbertsioetarako erreserba bereziagatik eta aurreko ekitaldietako oinarri likidagarri negatiboengatik, bai eta kuotan kenkariak aplikatzen dituztenean ere, kuota efektibo ezin izanen du izan zerga-oinarriaren zenbatekoaren ehuneko 14 baino txikiagoa.

Aurreko lerrokadako portzentajea ehuneko 10ekoa izanen da, baldin eta subjektu pasiboak zergaldian gutxienez ehuneko 5 handitzen badu plantillan lan-kontratu mugagabea dutenen batez bestekoa, zergaldia hasi aurreko hamabi hilabeteekin alderatuta.”

Zioak: Lege proiektuaren memorian, kuota efektiboaren eta gutxieneko kuotaren kontzeptuak sartu izana justifikatzen da esanez karga-tasaren jaitzieraren osagarri bat direla –muga bat–, eta kuotako kenkari sail bat kentzearekin lotura duela (utzi egin dira aktibo finko berrien kenkaria –zenbait kasutarako–, I+G+Baren kenkaria, biomasazko instalazio termikoena eta enplegu-sorrerarena). Ikusita oraindik ere zerga-oinarriari murrizketa

handiak egiten direla, zerga-oinarri negatiboak daudela, eta kuotan ere kenkariak egiten direla, kuota minimo bat ezartzea erabat da beharrezkoa. Proiektuan, gutxieneko tributaziorako kalkulua ezartzekoan ere, salbuetsi egiten zituen ikerketa eta berrikuntza teknologikoko jarduerengatik kenkariak. Uste dugu tributaziorako “gutxieneko zoru bat” ezarri nahi bada, bete dezan horrela zergak enpresen gaitasun kontributiboaren arabera helburu egiazkoa, salbuespenik gabe ezarri behar da, eta proiektuan ezarritakoa baino ehuneko altuagoan. Ez dugu muturreko formulazio bat planteatzen, zerga-tasa nominala eta erreala berdintzen sailatuko dena, horrek, bistan denez, zerga-oinarria murrizten duten doitzak ezabatzea ekarriko bailuke, eta kuota osoari eragiten dioten kenkari guztiak ere ezabatzea, halako moduz non desagertu egingen liritekeen kuota efektiboaren eta gutxieneko tributazioaren kontzeptuak. Baina ez da onargarria, era berean, sozietateen zerga, gutxika-gutxika, zergen sistemaren barruan zerga marjinala bihurtzen joatea (biltzen duen diruari dagokionez).

**13. ZUZENKETA****NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK  
AURKEZTUA**

Hogei atala kentzeko zuzenketa.

Atal hori 57. artikuluari buruzkoa da.

Zioak: Aurkeztu den proiektuan ez da justifikazio arrazoitu nahikorik ageri, behar lukeen moduan.

Proposatzen den neurria kontraesanean dago gutxienez ere Nazioartekotze Planarekin (2013-2016) eta Nafarroako Gobernuak berak bultzatzen duen Moderna Planarekin.

70. quater artikuluari aurkeztutako zuzenketa-rekin koherenteak izatearren.

**14. ZUZENKETA****MANU AYERDI OLAIZOLA ETA  
PATXI LEUZA GARCÍA  
FORU PARLAMENTARI JAUNEK AURKEZTUA**

Hogeita sei atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Foru Lege proiektuaren ordezkotzako testuko zio orokorretan jasotakoak, eta zio horiekin koherente izatearren.

**15. ZUZENKETA****IZQUIERDA-EZKERRA  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Hogeita sei atalean, 63. artikuluko 2. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ibilgetu materialeko elementu berrietan eginiko inbertsioengatik kenkaria enpresa sortu berrientzat bakarrik izatearekin ez gatoz bat.

**16. ZUZENKETA****NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK  
AURKEZTUA**

63 artikuluari buruzko Hogeita sei atala kentzeko zuzenketa.

2. zenbakia kentzea.

Zioak: Aurkeztu den proiektuan ez da justifikazio arrazoitu nahikorik ageri, behar lukeen moduan.

Proposatutako neurriek, denbora-muga bat ezartzen dietenez aktibo finkeen kenkariari, baldintzatu egiten dute inbertsio industrial berriak iristea, eta baldintzatu egiten ditu, halaber, dagoeneko badagoen ehundura industrial zabaltzeko proiektuak.

Aktibo finkeen kenkariak denbora-mugarik ez izatearena Nafarroako Gobernuak azken urte hauetan aplikatu duen politika industrialeko neurri eraginkorrenetakoa izan da.

**17. ZUZENKETA****NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK  
AURKEZTUA**

IV. kapitulan, 67. bis artikuluan, beste paragrafo bat gehitzeko zuzenketa.

Hona:

“Sozietateen gaineko zergaren subjektu pasiboek, baldin eta diru-ekarpenik egin badute zailtasunetan dauden enpresatzat hartuta dauden entitateen akzio edo partaidetzak eskuratzeko entitate horien kapital-zabalkuntza batean, eta ekarpena egitean enpresa horiek gutxienez ere bost langile badituzte, diru-ekarpen horren ehuneko 40ko kenkaria egiten ahalko dute”

Zioak: Enpleguari eusten laguntzea.

**18. ZUZENKETA****MANU AYERDI OLAIZOLA ETA  
PATXI LEUZA GARCÍA  
FORU PARLAMENTARI JAUNEK AURKEZTUA**

Hogeita zortzi atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Foru Lege proiektuaren ordezkotestuko zio orokorretan jasotakoak.

**19. ZUZENKETA****MANU AYERDI OLAIZOLA ETA  
PATXI LEUZA GARCÍA  
FORU PARLAMENTARI JAUNEK AURKEZTUA**

Hogeita bederatzi atala aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko da testua:

“Hogeita bederatzi. 2015eko urtarrilaren 1eko eraginekin, indarrak gabe uzten dira abenduaren 30eko 24/1996ko Foru Legearen 66. bis, 68, 68. bis, 70. bis y 70. ter”

Zioak: Foru Lege proiektuaren ordezkotestuko zio orokorretan jasotakoak, eta zio horiekin koherente izatearren.

**20. ZUZENKETA****NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK  
AURKEZTUA**

66. bis artikuluari buruzko Hogeita bederatzi atalean, artikulua horren a) letra kentzeko zuzenketa

Zioak: Aurkeztu den proiektuan ez da justifikazio arrazoitu nahikorik ageri, behar lukeen moduan.

Garrantzitsua da IKTetan inbertsioak egitera bultzatzea enpresak, ehundura produktiboaren lehiakortasuna handitzeko bideetako bat baita. Estatistikako Institutu Nazionalak eskueran jarritako azken datuek eragile desberdinetan erakusten dutenez, Nafarroako enpresak badute oraindik hobetzeko aukera esparru honetan. Nafarroako enpresen 98,9k badu Interneteko konexioa (horregatik proposatzen dugu a) letra kentzea)

Administrazio publikoekiko interakzioari dagokionez, Nafarroako enpresen % 87k badu aplikazioa; maila hori txikiagoa da estatuko batez bestekoa baino (% 91,1), Errioxako enpresena baino (% 96,2) eta Aragoikoena baino (% 91,7).

Enpresa nafarren % 80k du banda zabala eta mugikorra; zenbateko hori altuagoa da estatukoa

baino (% 73,8), eta mugakide ditugun erkidegoetako datuen parekoa, baina txikiagoa mailarik altueneko erkidegokoarena baino.

Nafarroako enpresen % 79,1ek du webgunea; Kataluniakoek, berriz, % 83,5 egiten dute.

Baliabide sozialen erabilera Nafarroako enpresetan (% 30,1), batez besteko nazionalaren azpitik dago.

Gauza bera gertatzen da *cloud computing* deiturikoaren kasuan. Nafarroako enpresen % 10,1ek erabiltzen du; batez besteko nazionala % 15ekoa da.

## 21. ZUZENKETA

### NAFARROAKO PARLAMENTUKO PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK AURKEZTUA

Hogeita bederatzi atala kentzeko zuzenketa.

Atal hori 68. artikuluari buruzkoa da.

Zioak: Aurkeztu den proiektuan ez da justifikazio arrazoitu nahikorik ageri, behar lukeen moduan.

Garrantzitsua da lanbide heziketa eta hizkuntza-prestakuntza bultzatzen jarraitzea langileen artean, horien enplegarritasuna handitzeko bide bat baita.

## 22. ZUZENKETA

### NAFARROAKO PARLAMENTUKO PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK AURKEZTUA

Hogeita bederatzi atala kentzeko zuzenketa. Atal hori 70. quater artikuluari buruzkoa da.

Zioak: Aurkeztu den proiektuan ez da justifikazio arrazoitu nahikorik ageri, behar lukeen moduan.

Proposatzen den neurria kontraesanean dago gutxienez ere Nazioartekotze Planarekin (2013-2016) eta Nafarroako Gobernuak berak bultzatzen duen Moderna Planarekin.

## 23. ZUZENKETA

### NAFARROAKO PARLAMENTUKO PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK AURKEZTUA

VI. tituluko IV. kapituluan (pizgarriengatikoen kariak), 2. atalean (zenbait jarduera sustatzeko kenkariak), beste artikulua bat gehitzeko zuzenketa.

“70. quinquies artikulua. Enpresa familiarren jarraipena.

Ondorengotza enpresarialerako eta jarraipenerako programa edo plan bat prestatzeak edo onesteak eragindako gastuek (protokolo familiarra) eskubidea emanen dute xede horretarako erabilitako zenbatekoen % 10eko kenkaria egiteko kuota osoan; muga, osotara, 3.000 eurokoa izanen da. Kenkari hori enpresa familiarrei bakarrik izanen zaie aplikatzekoa.”

Zioak: Ondorengotza enpresariala modu ordenatuan egin dadila erraztea, bide bat baita hori jarduera produktiboak eta enpleguak jarraipena izan dezan.

## 24. ZUZENKETA

### BILDU-NAFARROA ETA ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

Hogeita hamar atala kentzeko zuzenketa.

71.1, 2 eta 3 artikuluei buruzkoa da. Kenkariak enplegua sortzeagatik.

Zioak: Proiektuan proposatzen dena kenduz nahi dena da bere horretan jarrai dezatela 71. artikuluen 1., 2. eta 3. idatz-zatien oraingo testuak, uste baitugu orain dagoen kenkaria aski dela. Tradizionalki, kenkari hau justifikatu izan da esanez eragin positiboa izan lezakeela enpresen enplegusorretan. Hala ere, ez dago frogarik (eta daudenak kontrakoa iradokitzen dute) enplegua sortzeko funtsezko arrazoi gertatzen direla erakusten duenik, ezta kontratatze mugagaberako erabakigarriak gertatzen direnik ere. Enplegu-estatistikak ere, agerian jartzen dute sortzen duten enplegua eze-gonkorra, behin-behinekoa eta aldi baterakoa dela, eta hori guztia, gainera, kenkari horrek urte dezente eramanda.

**25. ZUZENKETA****NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK  
AURKEZTUA**

Hogeita hamar atalean, 71.1. artikulua 3. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Proiektuaren testuaren ordez honako hau jar-tzea proposatzen dugu:

“3. Aurreko 1. eta 2. idatz-zatietan aurreikusita-ko kenkariak 9.000 eurokoak izanen dira langileen desgaitasun-maila baldin bada % 33koa edo handi-agoa eta % 65ekoa baino txikiagoa, eta 12.000 eurokoak, berriz, desgaitasun-maila % 65ekoa baino handiagoa bada. Kenkari horiek eginen dira desgaitasuna duten langileen batez besteko planti-lla kontuan hartu eta Minusbaliatuak Gizartera-tzeari buruzko apirilaren 7ko 13/1982 Legearen 39. artikuluan xedatutakoari jarraikiz eginiko kon-tratuen bidez plantilla horretan gehitu diren per-sona-urte bakoitzeko, betiere bereizirik kalkulatu eta aurreko idatz-zatietan ezarritako prozedurak erabiliz”

Zioak: Langile desgaituak kontratatzeagatik kenkariak handitzea, Nafarroan minusbaliotasuna duten pertsonak ez daitezen gainerako erkidegoe-tan baino egoera okerragoan egon.

**26. ZUZENKETA****NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK  
AURKEZTUA**

Hogeita hamar atalean, 71. artikuluari beste idatz-zati bat gehitzeko zuzenketa.

Hona 4. idatz-zatia:

“Aurreko 1. idatz-zatian aurreikusitako kenkaria 10.000 eurokoa izanen da 45 urte baino gehiago-ko lan-kontratu mugagabeko langileen plantilla gehitutako pertsona-urte bakoitzeko, kontuan har-tuta langile horiek urtebete baino gehiago eraman behar zutela langabezia”

Zioak: 45 urte baino gehiagoko langabeena kolektiborik kaltetuenetako bat da, eta gehien hazi denetako bat krisiaren eraginez; normalean, gai-nera, zama familiar handiagoak izaten dituzte.

**27. ZUZENKETA****BILDU-NAFARROA ETA  
ARALAR-NAFARROA BAI  
PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA**

Hogeita hamaika atalean, 72.3 artikulua lehenengo eta bigarren lerroak aldatzeko zuzenketa.

72. artikulua. Kapitulu honetan aurreikusitako kenkari buruzko arau komunak.

“3. Kapitulu honetan aurreikusitako kenkari ezin izanen dute denon artean gaitu kuota likidoaren ehuneko 25, eta kuota likido hori heldu da kuota osoa murriztetik hobariekin eta zergapetze bikoitza –barnekoa eta nazioartekoa– ekiditeko kenkariekin.

Kuota aski ez izateagatik kentzen ez diren kopuruak aplikatzen ahalko dira, muga bera erres-petatuz, hurrengo lau urteetan amaitzen diren zergaldietako likidazioetan. Ondorio horietarako, sub-jektu pasiboak egiaztatu beharko du, dagokion moduan, kontabilitatea eta behar diren dokumen-tuak erakutsiz, kenkari jatorria eta zenbatekoa, sortu direneko zergaldia edozein dela ere”

Zioak: Lege proiektuko artikulua berriaren 3. idatz-zatiko lehenengo eta bigarren paragrafoak soilik aldatzea proposatzen da. Ez da lehenbiziko aldian erreklamatu duguna muga baxuagoa izan deza-la kuota likidoari aplikatu dakizkiokeen kenkari multzoak. Proiektuak % 25eko muga ezartzen du, guk 2013an lege proposamen baten bidez planteatu genuen bezala. Hala ere, uste dugu ez dagoela muga horri salbuespenik egiterik, eta ez lukeela kenkaririk egon beharko kuota osorik hartuko luke-enik; aurreikusita dago, izan ere, ekitaldi jakin batean muga gaitzen duten kenkariak hurrengo ekitaldietan aplikatzen ahalko direla. Zerga hone-kin diru gehiago bildu nahi bada, ez du zentzurik kuota likidoan egin daitezkeen kenkarietarako % 25eko muga jarri eta muga horrentzat salbuespe-nak izatea.

Oinarri likido negatiboen konpentsazio-epera-ko proposatutakoarekin bat, uste dugu lege proiektuan proposatutako epea handiagoa dela Adminis-trazioak bere egiaztatze- eta ikerketa-lanak egite-ko duen lau urteko epea baino, eta, beraz, foru lege proiektuan jasotzen den 10 urteko epea beharrean, 4 urteko gehieneko epea jartzea proposatzen dugu.



**28. ZUZENKETA****NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK  
AURKEZTUA**

Hogeita hamabi atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Aurkeztu den proiektuan ez da justifikazio arrazoitu nahikorik ageri, behar lukeen moduan.

Garrantzitsua da I+Garen arloko inbertsioak bultzatzea Nafarroako enpresa txiki eta ertainetan, beren lehiakortasuna hobetzeko bide bat baita.

Neurria kontraesanean dago Nafarroako Gobernuaren Plan Teknologikoarekin.

**29. ZUZENKETA****MANU AYERDI OLAIZOLA ETA  
PATXI LEUZA GARCÍA  
FORU PARLAMENTARI JAUNEK AURKEZTUA**

Hogeita hamalau atala aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko da testua:

“Hogeita hamalau. 110.10. artikulua.

10. Subjektu pasiboek kapital-arriskuko entitateen kapitalean edo funts berekietan egindako diruzko ekarpenen ehuneko 20 deduzitzen ahalko dute kuota likidoan.

Ekarpen horiek erabat ordainduak egon beharoko dute eta bost urtez iraun behar dute entitatearen aktiboan.

Kenkari hori aplikatuko da, betiere, 167.1.B).b) eta 167.1.D) artikuluetan ezartzen diren baldintzak betetzen badira eta, kapital-arriskuko entitateak eskaturik, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak berariazko baimena ematen badu.

Idatz-zati honetan araututako kenkaria foru lege honen VI. tituluko IV. kapituluan azaltzen diren kenkariekin batera aplikatuko da, 72. artikuluan ezarritako muga berekin. Kenkari hori ez da bateragarria izanen 36.1 artikuluan aurreikusitako baloreen berrinbertsioarekin”.

Zioak: Foru Lege proiektuaren ordezkio testuko zio orokorretan jasotakoak.

**30. ZUZENKETA****BILDU-NAFARROA ETA  
ARALAR-NAFARROA BAI  
PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA**

Berrogeita hamaika atala aldatzeko zuzenketa.

Berrogeita zortzigarren xedapen iragankorra.2015eko urtarrilaren 1a baino lehenago hasitako zergaldiei dagozkien likidazio-oinarri negatiboak.

“2015eko urtarrilaren 1ean hasten den zergaldiaren aurrekoan konpentsatzeke dauden zerga-oinarri negatiboek murriztu ahalko dituzte xedapen iragankor honek indarra hartu eta hurrengo lau urteetan amaitzen diren zergaldiei dagozkien zerga-oinarri positiboak”.

Zioak: Hamasei atalari aurkeztutako zuzenketa-arekin koherenteak izatearren.

**31. ZUZENKETA****MANU AYERDI OLAIZOLA ETA  
PATXI LEUZA GARCÍA  
FORU PARLAMENTARI JAUNEK AURKEZTUA**

Beste atal bat gehitzeko zuzenketa: Berrogeita hamairu bis. Hona testua:

“Berrogeita hamairu bis. Xedapen iragankor bat gehitzen da, berrogeita hamaikagarrena.

Berrogeita hamaikagarren xedapen iragankorra. Zerga-tasaren aldaketaren ondorioz aplikatuzkoa izanen den aldi baterako araubidea.

Subjektu pasiboa zerga-ordainketa aritu bada egiten karga-tasa orokorraren arabera, aukera izanen du 2014ko abenduaren 31n indarrean den zerga-tasa (% 30) aplikatzeko. Aukera hori erabiliko dela Ekonomia eta Ogasun Departamentuari jakinarazi beharoko da, 2014ko zerga-aitorpena egiteko epean. Ekonomia eta Ogasun Departamentuari aukera horri uko egin zaiola jakinarazi aurretik amaitzen diren zergaldietan, % 30eko zerga-tasa aplikatuko da”.

Zioak: Kontabilitateko araudiak adierazten duenez (Kontabilitateko Plan Orokorreko 13. balorazio-araua), zerga geroratuengatik aktibo eta pasiboak balioztatzeko, horiek gauzatzean espero diren karga-tasak hartuko dira kontuan, aintzat hartuta, horretarako, ekitaldiaren amaieran zer araudi dagoen indarrean edo zer araudi dagoen onetsita eta argitaratzeko zain, eta kontuan hartuta arrazionalki zer modutan aurreikusi den aktiboa berreskuratzea edo pasiboa ordaintzea. Horrela, gerta daiteke zerga legediaren aldaketagatik –karga-tasaren aldaketagatik, bereziki– eta enpresaren egoera ekonomikoaren bilakaeragatik, gorabeherak izatea zerga geroratuengatik pasiboen eta aktiboen zenbatekoetan. Karga-tasak murriztea, berez, neurri onuragarria da, baina, geroratutako zergen aktiboak berrebaluatzean, bat-bateko gale- ra bat eragiten du. Neurri horrek, bat-batean, sub-

jektu pasiboaren ondare garbia ahuldu egiten du, eta/edo zergak, finantza-ratioak eta abarrekoak bete ondorengo etekinak murriztu. Beste herrialde batzuetan, subjektu pasiboari aukera ematen zaio aurreko karga-tasa aplikatu dezan epe batez, karga-tasa murriztu izanak ez dezan bat-bateko eragin negatiborik izan.

### 32. ZUZENKETA

#### NAFARROAKO PARLAMENTUKO PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK AURKEZTUA

Xedapen iragankor bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Xedapen iragankorra. Zerga-tasaren aldaketaren ondorioz aplikatzekoa izanen den araubide iragankorra.

Subjektu pasiboa zerga-ordainketa aritu bada egiten karga-tasa orokorraren arabera, aukera izanen du 2014ko abenduaren 31n indarrean den zerga-tasa (% 30eko tasa) aplikatzeko.

Aukera hori erabiliko dela Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuari jakinarazi beharko zaio, 2014ko zerga-aitorpena egiteko epean. Ekonomia eta Ogasun Departamentuari aukera horri uko egin zaiola jakinarazi aurretik amaitzen diren zergaldietan, % 30eko zerga-tasa aplikatuko da.”

Zioak: Indarrean den kontabilitateko araudiak ezartzen duenez, zerga geroratuaren aktiboak eta pasiboak balioztatzeko, horiek gauzatzean espero diren karga-tasak hartuko dira kontuan, aintzat hartuta, horretarako, ekitaldiaren amaieran zer araudi dagoen indarrean edo zer araudi dagoen onetsita eta argitaratzeko zain, eta kontuan hartuta arrazionalki zer modutan aurreikusi den aktiboa berreskuratzea edo pasiboa ordaintzea.

Horrela, gerta daiteke zerga legediaren aldaketatik –karga-tasaren aldaketatik, bereziki– eta enpresaren egoera ekonomikoaren bilakaeratik, gorabeherak izatea zerga geroratuengatik aktiboen eta pasiboen zenbatekoetan.

Proiektuak proposatzen duen neurri horrek, bat-batean, subjektu pasiboaren ondare garbia ahuldu egiten du, eta/edo zergak ordaindu ondorengo etekinak murriztu.

### 33. ZUZENKETA

#### UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Berrogeita hamalau atala gehitzeko zuzenketa, zeinak berrogeita hamaikagarren xedapen iragankor bat gehitzen baitu.

Berrogeita hamalagarren atala. Berrogeita hamaikagarren xedapen iragankorra gehitzea. 2014an hasten diren zergaldietarako ondorioekin.

“Berrogeita hamaikagarren xedapen iragankorra. Salbuespena likidazio oinarri negatiboen konpentsazioaren mugatzeari.

Likidazio oinarri negatiboen konpentsazioaren mugatzea, zeina hogeita hamabosgarren xedapen gehigarrian ezarrita dagoen, ez zaio aplikatzekoa izanen subjektu pasiboarekin lotu gabeko hartzekodunekin iritsitako akordio baten ondoriozkoak diren kitei dagozkien errenten zenbatekoari”

Zioak: Sozietateen gaineko Zergari buruzko 24/1996 Foru Legeak, abenduaren 30ekoak, bere hogeita hamabosgarren xedapen gehigarrian ezartzen du ezen, 2014. urtean hasitako zergaldien kasuan, zenbait mugatze aplikatuko zaizkiola lehenagoko zergaldietakoak diren likidazio oinarri negatiboen konpentsazioari. Mugatze horiek izanen dira hogeita hamabosgarren xedapen gehigarrian ezarritako berberak, zeinen indarraldia luzatua izan baita. .

Horren arabera, zergaldian bertan negoziozifra gutxienez ere hogei milioi eurokoa izan duten sozietateek aurreko zergaldietako zerga-oinarri negatiboen konpentsazioa mugatuta daukate, konpentsazio horren aurretiko zerga-oinarriaren portzentaje batera. Portzentaje hori ehuneko 50 eta 60 bitartekoa da. Eta ez du salbuespenik onartzen.

Hori horrela, gertatzeko modukoa da hartzekodunen konkurtsoan dauden enpresek 2014ko ekitaldian kitadun hitzarmen bat onartzea hartzekodunekin (alegia, zergaren beherapen batekin). Kontabilitate-irizpideen arabera, kita horren zenbatekoa diru-sarrerara gisa egotziko da kontabilitate-emaitzan, eta, ondorioz, osoki integratuko da sozietateen gaineko zergaren zerga-oinarrian. Kontuan izanik ezen, aipaturiko hogeita hamabosgarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, ezin izanen dela aurreko ekitaldietako likidazio oinarri negatiborik osoki konpentsatu, gerta daiteke galerak izateaz gain hartzekodunen konkurtsoan dauden enpresak behartuta egotea, aipaturikoagatik, Sozietateen gaineko Zerga ordaintzera.

Araubide komuneko lurraldean aurreikusita dago egoera hori onbideratu beharra, eta bigarren atalean arautu da. 16/2013 Legearen 2. artikulua salbuespen bat ezarri zion 2014ko ekitaldirako zerga-oinarri negatiboen konpentsazioaren mugatzeari.

Ikus daitekeenez, zuzenketa horren asmoa da Nafarroako foru araudia aplikatzen duten sozietateak, beren negozio-zifra hogeit mila euroko kopurura iristen denean eta 2014an hartzekodunen konkurtso batetik atera direnak, eta, kitak nahiz zor-geroratzeak tarteko, beren jarduerarekin aurrera jarrai dezaketenak –horrek lanpostuei eusteko

dakarren ondorioarekin–, aurki ez daitezten araubide komuneko lurraldekoetan baino egoera okerragoetan.

Horretarako, 2014an hasten diren zergaldieta-rako eraginarekin, ezartzen da ezen hogeita hamabosgarren xedapen gehigarrian likidazio oinarri negatiboen konpentsazioari ezartzen zaion mugatzea ez dela aplikatzekoa izanen hartzekodunekiko akordio baten ondoriozko kitei dagozkien errenten zenbatekoan, baldin eta hartzekodun horiek subjektu pasiboarekin lotu gabe-koak badira.

## Foru Lege proiektua, Ondarearen gaineko zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legea hein batean aldatzen duena.

### ARTIKULUEI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen Ondarearen gaineko zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legea hein batean aldatzen duen Foru Lege proiektuaren artikuluei aurkezturiko zuzenketak. Proiektu hori 2014ko irailaren 4ko 94. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2014ko urriaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### 1. ZUZENKETA

#### UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEK AURKEZTUA

Atal bat gehitzeko zuzenketa, halako moduz non Bat atala Bat bis atala izatera pasatuko litzatekeen.

Bat atala. 16.1. artikulua.

"1. Aurreko artikulua aipaturikoez bestelako akzioen eta partaidetzen kasuan, horien balorazioa eginen da onetsitako azken balantzetik heldutako ondare garbiaren balioaren arabera, betiere balantze hori, ezinbestez nahiz borondatez, berrikusi eta egiaztatu bada eta auditoretza-txostena aldekoa izan bada.

Baldin eta balantzearen auditoretzarik ez bada egin edo auditoretza-txostena ez bada aldekoa izan, balorazioa eginen da honako hiru balio hauetako handiena hartuz: balio nominala, onetsitako azken balantzetik heldutako ondare garbiaren balioa, edo zergaren sortzapen-dataren aurretik itxitako hiru sozietate-ekitaldietako emaitzen batez bestekoa ehuneko 20ko tasan kapitalizatzen heldutakoa.

Azken ondorio horretarako, mozkinzat zenbatuko dira banatutako dibidenduak eta erreserbetarako esleipenak, balantze-erregularizazio edo -eguneratzekoak izan ezik".

Zioak: Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legearen 16.1 artikulua aldatuz, aldaketa tekniko bat eransten da, kontabilitate-arauetan sartutako aldaketen ondoriozkoa. Gaur egun ez da jada existitzen "akzioen eta partaidetzen balio teoriko" kontzeptua. "Balio

teoriko" kontzeptu horren ordez, sozietatearen ondare garbiaren balioaren arabera akzioei eta partaidetzei dagokien balioa hartu da erabiltzeko.

Adierazitakoari jarraituz, testu berria ematen zaio 16.1 artikuluari, zeinean zehazten baita zein izanen den edonolako entitatearen funts berekieta-ko partaidetzaren erakusgarri diren baloreen zerga-oinarria, baldin eta balore horiek ez badaude bigarren mailako merkatu ofizialetan negoziatuta. Beraz, bigarren mailako merkatu ofizialetan negoziatu gabeko partaidetzak eta akzioak direnean, horiek baloratuko dira aintzat hartuz onetsitako azken balantzetik suertatzen den ondare garbiaren balioa. 16.1 artikulua edukiaren gainerakoak lehengo testu berarekin segituko du.

### 2. ZUZENKETA

#### BILDU-NAFARROA ETA ARALAR-NAFARROA BAI

#### PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA

Artikulu bakarraren Bat atala –28.1 artikulua aldatzen duena– kentzeko zuzenketa.

Zioak: Nafarroako Gobernuak proposatzen duen proiektuak nabarmen okertzen ditu zergaren dirua biltzeko gaitasuna gaitasun birbanatzailea.

### 3. ZUZENKETA

#### MANU AYERDI OLAIZOLA ETA PATXI LEUZA GARCÍA

#### FORU PARLAMENTARI JAUNEK AURKEZTUA

Bat atala aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko da testua:

Bat. Azaroaren 29ko 13/1992 Foru Legearen 28.1 artikulua aldatzen da. Honela geldituko da testua:

28. artikulua.

"1. Likidazio oinarria kalkulatzeko, zerga-oinarria 550.000 euro murriztuko da salbuetsita dagoen gutxienekoagatik".

Zioak: Foru Lege proiektuaren ordezko testuko zio orokorretan jasotakoak, eta zio horiekin koherente izatearren.

**4. ZUZENKETA****MANU AYERDI OLAIZOLA ETA  
PATXI LEUZA GARCÍA****FORU PARLAMENTARI JAUNEK AURKEZTUA**

Bi atala aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko da testua:

Bi. Azaroaren 29ko 13/1992 Foru Legearen 30. artikulua aldatzen da. Honela geldituko da testua:

30. artikulua.

"Zergaren likidazio oinarriari ondoko eskalako karga-tasak ezarriko zaizkio:

Likidazio-oinarria zenbateraino (eurotan)	Kuota osoa (eurotan)	Oinarriaren soberakina zenbateraino (eurotan)	Aplikatzekoa den tasa (ehunekoa)
		200.000	0,10
200.000	200	200.000	0,20
400.000	600	400.000	0,30
800.000	1.800	800.000	0,50
1.600.000	5.800	1.600.000	0,90
3.200.000	20.200	3.200.000	1,30
6.400.000	61.800	6.400.000	1,70
12.800.000	170.600	Hortik gora	2,10"

Zioak: Foru Lege proiektuaren ordezkotestuko zio orokorretan jasotakoak, eta zio horiekin koherente izatearren.

**5. ZUZENKETA****MANU AYERDI OLAIZOLA ETA  
PATXI LEUZA GARCÍA****FORU PARLAMENTARI JAUNEK AURKEZTUA**

Beste atal bat –Bi bis– gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

Bi bis. Azaroaren 29ko 13/1992 Foru Legearen 31. artikuluko 1. eta 2. idatz-zatiak aldatzen dira. Honako testua izanen dute:

31. artikulua.

"1. Zerga honen kuota osoa, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kuota osoarekin batera, ez da azken horren zerga-oinarriko baturaren ehuneko 50etik goitiko izaten ahal.

Aurrezkiari dagokion zerga-oinarriko zati berezia, ondare gehikuntza eta murrizketen ondoriozkoa, eskualdatze egunaren aurretik gutxienez ere urtebete lehenago eskuratutako ondare elementuen eskualdaketa edo horietan egindako hobekuntzen saldo positiboari dagokiona, ez da

kontuan hartuko, ez eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kuota osoan aurrezkiaren zerga-oinarriko zati bereziari dagokion zatia ere.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zerga-oinarriaren aurrezkiari dagokion zati bereziari gehituko zaio Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen hogei-ta seigarren xedapen iragankorreko 6. artikuluko a) letrak aipatzen duen mozkinetako partaidetzen eta dibidenduen zenbatekoa.

2. Bi kuoten baturak aurreko idatz-zatian aipatzen den muga gainditzen baldin badu, zerga horren kuota gutxituko da muga horretara iritsi arte; gutxitze hori ezin izanen da ehuneko 50 baino handiagoa izan."

Zioak: Foru Lege proiektuaren ordezkotestuko zio orokorretan jasotakoak, eta zio horiekin koherente izatearren.

**6. ZUZENKETA****NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK  
AURKEZTUA**

Bi atalean beste artikulua bat – 30. bis– gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

"30. bis artikulua. Kuota osoaren hobari orokorra.

Zergak ordaintzeko behar pertsonala edo erreala duten subjektu pasiboari ehuneko 100eko hobaria aplikatuko zaie zergaren kuota osoan".

Zioak: Ondarearen gaineko zerga Nafarroan kentzea, jarraituz halako printzipioari non erkidegoko herritarrek ez baitute egoera okerragoan egon behar Espainiaren gainerako lurraldeetakoek baino.

Badira jadanik zenbait erkidego, Madril kasu, ondarearen gaineko zerga aplikatzen ez dutenak, eta beste batzuk, Errioxa kasu, aurki kenduko dutela iragarri dutenak. Madrilgo egoerak helbide fiskala Nafarroatik erkidego horretara aldatzea eragin du, eta horrek ondorioak ekarri dizkio ondarearen gaineko zergagatiko dirubilketari, bai eta PFE-Zagatiko diru-sarreraren murrizketa ekarri ere.

**7. ZUZENKETA**

**BILDU-NAFARROA ETA  
ARALAR-NAFARROA BAI  
PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA**

Artikulu bakarraren Bi atala –30. artikulua aldatzen duena– kentzeko zuzenketa. Kuota osoa.

Zioak: Nafarroako Gobernuak proposatzen duen proiektuak nabarmen okertzen ditu zergaren dirua biltzeko gaitasuna gaitasun birbanatzailea.

**8. ZUZENKETA**

**BILDU-NAFARROA ETA  
ARALAR-NAFARROA BAI  
PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA**

Artikulu bakarraren Hiru atala –36. artikulua aldatzen duena– kentzeko zuzenketa.

Zioak: Nafarroako Gobernuak proposatzen duen proiektuak nabarmen okertzen ditu zergaren dirua biltzeko gaitasuna gaitasun birbanatzailea.

**9. ZUZENKETA**

**NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK  
AURKEZTUA**

Artikulu bakarraren Hiru atala (36. artikulua) kentzeko zuzenketa.

Zioak: Nafarroan 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera ondarearen gaineko zerga kentzeko planteatu dugun zuzenketarekin bat.

**10 ZUZENKETA**

**MANU AYERDI OLAIZOLA ETA  
PATXI LEUZA GARCÍA  
FORU PARLAMENTARI JAUNEK AURKEZTUA**

Hiru atala aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko da testua:

Hiru. Azaroaren 29ko 13/1992 Foru Legearen 36. artikulua aldatzen da. Honela geldituko da testua:

36. artikulua.

"Subjektu pasiboek nahitaez aurkeztu beharko dute aitorpena baldin eta zerga-kuotaren emaitza, zergaren arauekin bat zehaztua, eta behin bidezkoak diren kenkariak edo hobariak aplikaturik, diru-sarrera egin behar dela bada, edo, hala ez denean, subjektu pasiboaren ondasun edo eskubideen balioa, zergaren arauekin bat zehaztuta, 1.000.000 eurotik gorakoa denean.

Nolanahi ere, autolikidazioaren emaitza edo ondasun eta eskubideen balioa alde batera utzita, berdin aurkeztu beharko dute autolikidazioa foru lege honen 16. artikuluan aipatzen diren ondare-elementuen titular diren pertsona fisikoek, bai eta entitate horiekin lotuta dauden pertsona fisikoek ere, baldin eta sozietatearen, inbertsio kolektiboko erakundearen edo kooperatibaren eskutik maileguak, kredituak edo kapital berekien beste edozein motatako lagapen jaso baldin badituzte, eta hala-koak 100.000 eurokoak edo gehiagokoak badira.

Eragin horietarako, loturarik dagoen zehaztuko da erreferentzia hartuta zer pertsona aipatzen diren Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 28.3 artikuluan."

Zioak: Foru Lege proiektuaren ordezkotako testuko zio orokorretan jasotakoak, eta zio horiekin koherente izatearren.

**Foru Lege proiektua, hein batean aldatzen dituen Ondare eskualdaketan eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren xedapenak biltzen dituen Testu Bategina, apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia, Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legea eta Kooperatiben zerga araubidea arautzen duen ekainaren 21eko 9/1994 Foru Legea.**

**ARTIKULUEI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen Foru Lege proiektu honen artikuluei aurkezturiko zuzenketak: "Foru Lege proiektua, hein batean aldatzen dituen Ondare eskualdaketan eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren xedapenak biltzen dituen Testu Bategina, apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia, Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legea eta Kooperatiben zerga araubidea arautzen duen ekainaren 21eko 9/1994 Foru Legea". Proiektu hori 2014ko irailaren 4ko 94. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2014ko urriaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**1. ZUZENKETA**

**MANU AYERDI OLAIZOLA ETA  
PATXI LEUZA GARCÍA**

**FORU PARLAMENTARI JAUNEK AURKEZTUA**

Lehenengo artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko da testua:

«Lehenengo artikulua. Ondare eskualdaketan eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren xedapenak biltzen dituen Testu Bateginaren aldaketa.

Apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren Xedapenen Testu Bategineko 35.1.B) artikulua 21. zenbakia honela idatzita geldituko da:

"21. Kredituak kapital bihurtzeko konkurtsopekotzat deklaraturako pertsona juridikoek egindako kapital-gehitzeak, baldin eta hura Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003

Legearen arabera epaitegian onartutako hitzarmen batekoa bada.

Halaber, 'egintza juridiko dokumentatuen' modalitateak salbuetsita egonen dira zordunaren maileguen, kredituen eta gainerako betebeharren kitak edo gutxitzeak jasotzen dituzten eskriturak, birfinantzate akordioaren barruan edo uztailaren 9ko 22/2003 Konkurtsoari buruzko Legearan ordainketarako aurreikusitako auzibidez kanpoko akordioaren barruan sartuta daudenean, eta, betiere, kasu guztietan zorduna bada zergaren subjektu pasiboa"».

Zioak: Foru Lege proiektuaren ordezkotako testuko zio orokorretan jasotakoak.

**2. ZUZENKETA**

**MANU AYERDI OLAIZOLA ETA  
PATXI LEUZA GARCÍA**

**FORU PARLAMENTARI JAUNEK AURKEZTUA**

Bigarren artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko da testua:

"Bigarren artikulua. Fundazioen eta Babes Jardueren Tributu Araubidea arautzen duen Foru Legearen aldaketa.

2015eko urtarrilaren 1etik aurrera, Fundazioen eta Babes Jardueren Tributu Araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legearen manu batzuek, ondotik heldu direnek, honako testu hau izanen dute:

Bat. 9.1. artikulua.

1. Fundazioaren helburuetarako erabili beharko dira, gutxienez, fundazioak lortutako errenta eta diru-sarrerak garbien ehuneko 70. Errenta horien kalkuluan ez dira sartuko ondasun higiezinaren kostu bidezko eskualdaketan lortutakoak, entitateak bere helburua edo xedari dagokion jardueran higiezin horietan aritzen bada; eskualdaketa horren zenbatekoa, betiere, berriz inbertituko da ezaugarri hori betetzen duten ondasun eta eskubi-

deetan. Ondareko zuzkidura gisa egiten diren ekarpenak, dela eraketa unean dela geroago, ez dira kontatuko zenbaki honetan ezarritako ondo-rioetarako.

Bi. 11. artikulua.

11. artikulua. Kontabilitatea eta auditoria.

1. Foru lege honetako tributu araubideari atxikitzen zaizkion fundazioei derrigorrez aplikatuko zaizkie Kontabilitate Plan Orokorra irabazi asmorik gabeko entitateei egokitzeko arauak.

Sozietateen gaineko zergan salbuetsi gabe dauden ustiatgeietatik errentak lortzen dituzten fundazioek Merkataritza Kodean eta zerga horren arau erregulatzailan aurreikusitako kontabilitate-betebeharrak izanen dituzte. Entitate horien kontabilitatea halako moduan eramanen da non aukera emanen baitu ustiapen ekonomiko salbuesiei eta salbuetsi gabekoei dagozkien diru-sarrerak eta gastuak identifikatzeko.

2. Urtero, fundazioaren patronatuak egoeraren balantzea eta emaitzen kontua eginen ditu, zeinetan argiro azalduko baita fundazioaren diru, finantza eta ondare egoera zein den, eta memoria bat ere prestatuko du, fundazioaren jarduerak eta haren kudeaketa ekonomikoa zein izan diren adierazteko, eta fundazioaren helburuak zehazki zenbateraino bete diren ere adierazteko. Memorian diru-sarrerak eta gastuak zehaztuko dira, proiektuen eta kategorien arabera sailkatuta, bai eta honakoak ere: inbentarioa, diru-sarreraren helburuaren gaineko jarraipena, 92. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, merkataritzako entitateetan duten partaidetzaren portzentajea, eta gobernu, zuzendaritza eta ordezkaritza organoetan izan dituzten aldaketak.

3. 2. idatz-zatian aipatzen diren agiriak Nafarroako Zerga Ogasunean aurkeztuko dira sozietateen gaineko zergaren autolikidazioa aurkezteko epean. Egoeraren balantzea eta emaitzen kontua zerga horren autolikidazioarekin batera aurkeztuko dira.

4. Fundazioetako kontuei kanpoko auditoria eginen zaie, ekitaldia ixten den egunean, bi urtez jarraian, hurrengo alderdietako bat gertatzen bada:

a) Aktiboko kontu-sailek, guztira, 2.000.000 euro baino gehiago egiten badute.

b) Haien diru-sarreraren urteko zifraren zenbategarbia 2.000.000 eurotik gorakoa bada.

c) Ekitaldian izan duten langileen batez besteko kopurua hogeita bostetik gorakoa bada.

Auditoriako txostenak Nafarroako Zerga Ogasunean aurkeztuko dira 3. zenbakian finkatutako epean.

5. Aurreko 2. eta 4. zenbakietan aipatzen diren dokumentuak Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak ezartzen duen moduan eta tokian aurkeztuko dira, eta hark erabakiko du haien gutxieneko edukia eta zer baldintzatan aurkeztuko diren, baita baliabide informatiko edo telematikoko bitartez aurkeztu behar diren edo ez.

6. Artikulu honetan ezarritako betebeharren ez betetzea zergen arloko arau-hauste soil gisa tipifikatuko da, eta Fundazioa izanen da haren subjektu aktiboa. Bestalde, betebeharraren ez-betetzea onartu duten edo hartan lagundu edo parte hartu duten Fundazioko patronatuko kideek erantzule subsidiariorat hartuko dira.

Hiru. 14. artikulua.

14. artikulua. Ordainsaria.

Aurreko artikuluan xedatutakoa ezertan ukatu gabe, patronatuko kideek entitatearen ordainsariak jaso ditzakete lan edo lanbide harreman baten ondorioz zerbitzuak emateagatik. Edozein kasutan ere, ordaindutako zerbitzu horiek ez dira izanen patronatuko kide karguari dagozkion zeregin eta eginkizun berberak.

Lan edo lanbide harremana arautzeko, soilik lan- edo merkataritza-kontratu bat dokumentatu beharko da, zein zeregin ordainduko diren argi zehaztuko duena. Patronatuko kide batekin formalizatutako kontratuen zenbatekoak muga hauek txikiena baino txikiagoa izan beharko du: 60.000 euro urtean edo patronatuak onartutako azken ekitaldi itxian fundazioak izandako diru-sarreraren ehuneko 5.

Ez patronatuko kide ez den fundazioko kideak, ez haren ezkontideak edo izatezko bikotekideak ezin izanen dute inoiz ordainsaririk jaso zerbitzuak emateagatik; debeku hori patronatuko kideen ezkontideei eta izatezko bikotekideei ere zabalduko zaie.

Lau. 17. artikulua.

17. artikulua. Baldintzen ez-betetzeak egiaztatzea eta haien ondorioak.

1. Nafarroako Zerga Ogasuna erakunde autonomoak araubide berezi horretaz baliatzeko beharrezkoak diren baldintzak betetzen direla egiaztatuko du eta, hala behar denean, fundazioaren tributu egoeraren ondoriozko erregularizazioa egiten du.



2. Foru lege honetan ezarritako baldintzaren bat betetzen ez bada, entitatea beharturik egonen da oso-osorik pagatzera honako zerga hauen kuotak, tributuen gaineko arauekin bat: sozietateen gaineko zerga, toki-tributuak eta ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga. Halaber, berandutza-interesak eta, bidezko izanez gero, zehapenak ere ordaindu beharko ditu, artikuluan honetan ezarritako moduan. Lege honetako 11. artikuluan ezarritako formazko betekizunak betetzen ez badira, artikuluan horretako 6. idatz-zatian ezarritakoari begiratuko zaio.

3. Aurreko lerrokadako betebeharrak hori gaizki aplikatutako emaitzak eta diru-sarrerak lortu ziren ekitaldiko kuotei dagokie, baldin eta foru lege honen 9. artikuluan ezarritako eginbeharra bada. Legearen 12. artikuluan agindutakoa izanez gero, berriz, ez-betetzea egin den ekitaldia eta aurreko laurak hartuko dira kontuan; hori hala ere, ez da eragozpen izanen bidezko izan daitezkeen zehapenak ezartzeko.

11. artikuluan aipatzen den dokumentazioa, aurkezpen epea amaitua duen ekitaldiari buruzkoa, zergaren sortzapenaren egunean osorik aurkeztu ez duten entitateek ez dituzte izanen foru lege honen 30. eta 31. artikuluetan ezarritako salbuespenak, ez eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 150.1. d) eta e) eta 173.2. c) artikuluetan ezartzen direnak ere. Betebeharrak hauek betetzeari edo ez betetzeari buruzko informazioa kasuan kasuko udalari jakinaraziko dio Nafarroako Zerga Ogasunak, automatikoki.

Aurreko zenbakietan aurreikusirik ez dauden gainerako kasuetan, 2. zenbakian aipatzen den ez-betetzeak hura gertatzen den ekitaldiko kuotak ordaintzeko betebeharrak ekarriko du, eta bidezko diren zehapenen berandutza- eta inposizio-interesak exijituko dira, kasua bada.

4. Araubideaz baliatzeko baldintzak modu sistematikoan betetzen ez badira, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentua kasuko espedientea ireki beharko du araubidea galdu dela deklaratzeko, betiere Nafarroako Zerga Ogasunaren erakunde autonomoak proposatuta. Ondorio horietarako, ez-betetzea sistematikoa dela ulertuko da entitateak bost urteko epean hiru ekitalditan betetzen ez dituzten zerga araubide honen baldintzak. Halaber, ez-betetzea sistematikoa dela ulertuko da 11. artikuluan aipatzen diren agiriak hiru ekitalditan jarraian aurkeztu ez direnean. Irizpide hori bera aplikatuko da begi bistakoa denean aurkeztutako agiriak ez direla aski egiaztatzeko zerga araubide honen baldintzak betetzen direla.

Ondorio horietarako, entitate interesdunari entzun ondoren, ebazpena emanen da, eta ukitutako udalei ere igorriko zaie.

Araubidea galdu dela deklaratzeko duen ebazpena jakinarazi eta urtebete iragan ondoren –betiere, ebazpen hori bide administratiboan edo judizialean irmoa denean–, entitateak araubidea berreskuratzeko eskaera egin dezake, baina Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuan frogatu beharko du beharrezkoak diren neurriak hartu dituela galera eragin zuten ez-betetzeak errepika ez daitezkeen; kasu horretan 15. eta 16. artikuluetan xedatutakoa aplikatuko da.

#### Bost. 18.1. artikulua.

1. Fundazioek erdietsitako errentak salbuetsita egonen dira kasu hauetan:

a) Fundazioaren xede soziala edo haren berariazko helburua osatzen duten ohiko jardueretatik ateratakoak badira, ustiapen ekonomiko baten bidez edo bestela.

b) Ondasunen edo eskubideen erosketen edo eskualdaketen ondorio direnean, edozein tituluren bidez, entitatearen desegitea edo likidazioa dela eta lortutakoak barne. Nolanahi ere, batzuk zein besteak berariazko xedea edo helburua betetzean egin beharko dira.

Administrazio publikotik eta beste erakunde edo ente publikoetatik eskuratutako diru-laguntzak salbuetsitako errentak izanen dira, betiere entitatearen xedeak gauzatzeko erabiltzen badira eta salbuetsita ez dauden ustiapen ekonomikoak finantzatzeko erabiltzen ez badira. Ondasunen edo eskubideen irabazizko eskuratzeko kasuan, fundazioaren xedeak gauzatzeko erabili beharko dira, edo eskuratu ziren egunetik bi urteko epean beterendu. Epe hori luzatu ahal izanen da baldin eta ondasun edo eskubide horien xedea Fundazioak egin eta Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuak onartutako plan baten arabera bada.

Kostu bidezko eskualdaketen kasuan, lortutako kontraprestazioa entitatearen berariazko xede edo helburua gauzatzeko erabili beharko da.

c) Hirugarrenei lagatako ondare-elementuen ondoriozkoak, konparazio batera, sozietate, interes, kanon eta alokairuetatik datozen irabazietako dibidendu eta partaidetzak.

#### Sei. 22. artikulua.

22. artikulua. Likidazio oinarri negatiboen konpentsazioa.

Likidazio oinarri negatiboak konpentsatu ahal-ko dira, ondoz-ondoko hurrengo hamar urteetan amaitzen diren zergaldietako likidazio oinarri positiboekin. Aurretik, bidezkoa den likidazioa edo autolikidazioa beharko dute likidazio oinarri negatibo horiek.

Zazpi. 25.3 artikulua.

3. Ez da atxikipenik ez konturako diru-sarrerarik ere eginen foru lege honen ondorioz salbuetsita dauden errentengatik, ezta hirugarrenei lagatzen zaizkien ondare elementuen ondoriozkoengatik ere, zeinen artean sartzen baitira sozietate, interes, kanon eta alokairuetatik datozen irabazietako dibidendu eta partaidetzak, ez eta inbertsio kolektiboko erakundeen akzio eta partaidetzen eskualdaketa edo itzulketen ondoriozko ondare-gehikuntzengatik ere.

Errenta horien atxikipenik ez egiteko, 11. artikuluan ezarritako betebeharrak eta egitekoak egunean eduki behar dira, aurkezpen epea amaitua duen azken ekitaldiari dagokionez; baldintza hori Nafarroako Zerga Ogasunak urtebeterako balioarekin emandako ziurtagiriaren bidez frogatu beharko da.

Zortzi. Bigarren xedapen gehigarria. 2

2. Tributu araubide hau aplikatzeko, Nafarroako Zerga Ogasunaren aurrean frogatu beharko da kasu bakoitzean eskatzen diren baldintzak betetzen direla, aurreko 1. zenbakian ezarritakoarekin bat, eta zenbaki horretan aipatzen diren entitateek 11. artikuluan fundazioei ezartzen zaizkien eskakizunak bete beharko dituzte.

Eragin horietarako, 11. artikuluan ezarritako betebeharrak eta egitekoak bete direla ulertuko da, baldin eta urtero Nafarroako Zerga Ogasunaren erakunde autonomoak emandako ziurtagiria lortzen bada”.

Zioak: Foru Lege proiektuaren ordezkio testuko zio orokorretan jasotakoak.

### 3. ZUZENKETA

**MANU AYERDI OLAIZOLA ETA  
PATXI LEUZA GARCÍA**

FORU PARLAMENTARI JAUNEK AURKEZTUA

Hirugarren artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko da testua:

“Hirugarren artikulua. Kooperatiben zerga araubidea arautzen duen Foru Legearen aldaketa.

2015eko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako, Kooperatiben Zerga Araubidea arautzen duen ekainaren 21eko 9/1994 Foru Lege-

aren manu batzuek, ondotik heldu direnek, honako testua izanen dute:

Bat. 20.1.1 artikulua.

1. Zerga kontuetarako babesturiko kooperatibei tasa hauek ezarriko zaizkie:

Lehena. Kooperatiben emaitzei dagokien zerga-oinarriari ehuneko 18ko tasa aplikatuko zaio. Kooperatibaz kanpoko emaitzei dagokien zergak Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 50.1. artikuluan ezarritako tasaren arabera ordainduko dira.

Bi. 21.1 artikulua.

1. Aurreko artikuluan aipatzen den batura negatiboa bada, zenbatekoa konpentsatu ahal izanen da ondoko hamar urteetan, jarraian, amaitutako zergaldietako kuota positibo osoekin. Kuota negatiboek beharko dute izan egin beharreko likidazio edo autolikidazioaren ondorioa. Konpentsazioa egiten bada, kuota negatiboen zergaldiak preskribitu gabeak izanen dira, dagokion konpentsazioaren zenbatekoa kalkulatzearen ondorioetarako soilik.

Hiru. 27. artikulua.

Kendu egiten da 2. idatz-zatia, eta, horrela, oraingo 3. idatz-zatia 2.a izanen da.

Lau. 37. artikulua.

37. artikulua. Karga-tasa.

Aurreko artikulua aipatzen dituen kreditu kooperatiba babestuei, Sozietateen gaineko Zergari dagokionean, ondoko karga-tasak aplikagarri izanen zaizkie:

1. Kooperatiben emaitzei dagokien zerga-oinarriari ehuneko 23ko tasa aplikatuko zaio. Horren ondorioetarako, kooperatibaren emaitzat hartuko dira, Foru Lege honetako II. tituluaren I. kapituluko 3. atalean ezarritakoez gain, 36. artikuluan 2. zenbakiko b) letraren bigarren lerroaldean adierazi eragiketen ondoriozkoak.

2. Kooperatibaz kanpoko emaitzei dagokien zerga-oinarriari, abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko 50.1 artikuluan adierazitako tasa aplikatuko zaio. Emaitza horiek bereizita kontabilizatu beharko dira.

Bost. Hamaikagarren xedapen gehigarria gehitzea.

Hamaikagarren xedapen gehigarria. Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 72.8. artikuluan ezarritako gutxieneko zerga-tasaren aplikazioa.

Foru lege honen hirugarren xedapen iragankorrean ezarritakoa ukatu gabe, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 72.8. artikulua aplikatuko zaie foru lege honen arabera babes berezia duten kooperatibei, bai eta babes berezia duten nekazaritzako kooperatibak diren lehentasunezko elkarkidetzako ustiategiari ere. Era berean, laugarren xedapen gehigarrian aipatzen diren kooperatibei aplikatuko zaie.

Sei. Hirugarren xedapen iragankorra gehitzea.

Hirugarren xedapen iragankorra. 2015eko urtarrilaren 1a baino lehenago hasitako zergaldiei dagozkien kuota negatiboak.

21.1 artikuluan aipatzen den batura negatiboak, 2015eko urtarrilaren 1ean konpentsatu gabe dagoenak eta 2015eko urtarrilaren 1ean hasitako zergaldia baino lehenago sortutakoak, aldaketa honek indarra hartzen duenetik aurrera jarraian

kontatutako ondoko hamar urteetan amaitzen diren zergaldiei dagozkien kuota positibo osoak gutxitu ahal izanen ditu.

Halere, ez dira konpentsatuko aurreko lerrokan aipatzen den datan ordaindu gabe dauden zenbatekoak, betiere, bertan aipatzen den hamar urteko epea iragan aurretik, hamabost urte baino gehiago iragan badira sortu ziren egunetik.

Foru lege honen hamaikagarren xedapen gehigarrian ezarritakoa ukatu gabe, bai kasu hauetan bai aurreko urteetan ordaindu ez den kuota osoaren kenkariak aplikatzen diren kasuetan, kontuan hartuko da Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru legearen 51. artikuluan ezarritakoa.”

Zioak: Foru Lege proiektuaren ordezkio testuko zio orokorretan jasotakoak.

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Jabeldura, Nafarroako Gobernuko lehendakariak egindako adierazpenari buruzkoa, zeinaren arabera Euskarari buruzko legea Estatu-auzi edo Estatu-politika baita.**

*ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko azaroaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko jabeldura, Nafarroako Gobernuko lehendakariak egindako adierazpenari buruzkoa, zeinaren arabera Euskarari buruzko legea Estatu-auzi edo Estatu-politika baita.

**2.** Jabeldura hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

**3.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2014ko azaroaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**JABELDURAREN TESTUA**

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledun Patxi Zabaleta Zabaletak honako jabeldura hau

aurkezten dio Nafarroako Gobernuko lehendakari Yolanda Barcina andreari, Nafarroako politika orokorraren barruan hizkuntza politikak eta, zehazki, euskarari buruzkoak izan beharreko baldintzaren, ondorio eta ohartarazpenei buruzkoa, premia izapidetu dadin:

Nafarroako Gobernuko lehendakariak komunikazio edo jarraibide politikorik jaso al du Estatuko botereren baten edo instantzia politiko nabarmenen baten aldetik, Euskarari buruzko legea Estatu-auzi edo Estatu-politika izateari buruz egin dituen adierazpen publikoei dagokienez? Hala baldin bada, nolakoa izan da hori?

Zioak:

Adierazpen horien ondorioa da, edo izan daiteke, parlamentarien askatasuna baldintzatzea lege horren tratamenduan edo balizko aldaketan.

Iruñean, 2014ko azaroaren 3an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, Legebiltzarrak onetsitako erabaki bati buruzkoa. Erabaki horrek Nafarroako Gobernua premiatzen du diziplina anitzeko azterlan bat egitera, aztertze aldera zer arrazoi zehatz egon litezkeen Nafarroan erretiratutako salaketen kopurua hain handia izateko.**

*MARÍA VICTORIA ARRAIZA ZORZANO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko azaroaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea María Victoria Arraiza Zorzano andreak aurkeztutako gaurkotasan handiko galdera, Legebiltzarrak onetsitako erabaki bati buruzkoa. Erabaki horrek Nafarroako Gobernua premiatzen du diziplina anitzeko azterlan bat egitera, aztertze aldera zer arrazoi zehatz egon litezkeen Nafarroan erretiratutako salaketen kopurua hain handia izateko.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko azaroaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**GALDERAREN TESTUA**

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari María Victoria Arraiza andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Nafarroako Parlamentuak, iragan ekainaren 26an eginiko Osoko Bilkuran, aho batez onetsi zuen erabaki bat, Nafarroako Gobernua premiatzen zuena "diziplina anitzeko azterlan bat egitera, aztertze aldera zer arrazoi zehatz egon litezkeen Nafarroan genero indarkeriari buruzko salaketa erretiratuen kopurua hain handia izateko, eta azterlanaren ondorioak jasotzera generoko indarkeriari buruzko lege berria".

Aurtengo bigarren hiruhilekoari buruzko datuen arabera –orain dela gutxi argitaratu dira, Generoko eta etxeko indarkeriaren aurkako Behatoki Judizialaren txostenean–, Nafarroa da, oraindik ere, genero indarkeriako salaketa gehien erretiratzen diren erkidegoa. Hamar pertsonatik hiruk erretiratzen dute, eta Estatuan, aldiz, % 13k. Bigarren hiruhilekoan, zehazki, 311 salaketa egon ziren, eta 94 erretiratu.

Galdera:

Prozedura hori abian jarri al da? Abian jarri baldin bada, zer urrats egin dira? Diagnostikorik ba al dugu jadanik?

Iruñean, 2014ko urriaren 24an

Foru parlamentaria: María Victoria Arraiza Zorzano

## **Galdera, Erljio Heziketa ikasgaiko irakasleei zuzenduriko “Familia eta bizitza” izeneko mintegiaren deialdiari buruzkoa.**

### *MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko azaroaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Marisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Erljio Heziketa ikasgaiko irakasleei zuzenduriko “Familia eta bizitza” izeneko mintegiaren deialdiari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko azaroaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Marisa de Simón Caballerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuak heldu den azaroaren 6ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

"Familia eta bizitza" izeneko mintegiaren deialdiaren berri izan dugu. Mintegia Erljio Heziketa

–katolikoa, nonbait– ikasgaiko irakasleei zuzenduak da, Hezkuntza Departamentuaren 2014-2015 ikasturteko Prestakuntza Planaren barruan.

Jarduera horrek doktrinatzeko-izaera garbiko helburuak eta edukiak ditu, ez dietenak erantzuten ez Nafarroako Foru Komunitateko irakaskuntza ez-unibertsitarioko hezkuntza-etapetako curriculum ofizialari ez hezkuntzaren helburu orokorrei. Hor-taz, ez Hezkuntza Departamentuak ez Nafarroako Gobernuak ez ditu horiek jorratu eta sustatu behar. Iruñeko Artzapezpikutzak izan beharko litzateke, betiere, bere doktrina emateko ahalmena izan beharko lukeena.

Nafarroako Gobernuaren ustez, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuaren Irakasleen Prestakuntza Planean sartu behar al dira gisa horretako doktrinatzeko-jarduerak? Prestakuntza-jardura horrek zer aurrekontu dauka? Noren kargura egiten da? Hezkuntza Departamentuak erlijio katolikoko irakasleen prestakuntzarako 2014-2015 ikasturterako daukan aurrekontua zenbatekoa da?

Iruñean, 2014ko azaroaren 3an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

## **Galdera, Nafarroako Aurrezki Kutxan ustelkeriari buruzko zenbait datu azaltzeari buruzkoa.**

*PATXI ZABALETA ZABALETA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko azaroaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako Aurrezki Kutxan ustelkeriari buruzko zenbait datu azaltzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko azaroaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Aralar - Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebil-

tzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, gaurkotasun handiko galdera hau aurkeztu du, azaroaren 6ko Osoko Bilkurarako, Nafarroako Gobernuko lehendakari Yolanda Barcina Angulo andreak ahoz erantzun dezan:

- Nafarroako Gobernuko lehendakariaren eta Gobernuaren beraren ustez, Nafarroako Aurrezki Kutxan ustelkeriari buruzko zenbait datu azaldu izanak –esaterako, Nafarroako Kutxako Kontseiluak berak antolatutako hitzaldietara joateagatik kontseilariak kobratu izanak– ez al du justifikatzen Parlamentuan ikerketa batzorde bat eratzea, are gehiago kontuan hartuta orain ez dagoela epaitegiak auzia ikertzen ari izatearen aitzakia edo arrazoia?

Iruñean, 2014ko azaroaren 3an

Foru parlamentaria: Patxi Zabaleta Zabaleta

## **Galdera, jakitekoa zer ekintza urgente egingen duen Nafarroako Gobernuak, Esako urtegia handitzearen ondorioz kaltetutako nafar herritarren segurtasuna defendatzeko.**

*VÍCTOR RUBIO MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko azaroaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Víctor Rubio Martínez jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakitekoa zer ekintza urgente egingen duen Nafarroako Gobernuak, Esako urtegia handitzearen ondorioz kaltetutako nafar herritarren segurtasuna defendatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko azaroaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Víctor Rubio Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

- Nafarroako Gobernuak zer ekintza urgente egingen du Esako urtegia handitzeko obrek kaltetutako nafar herritarren segurtasuna defendatzeko?

Iruñean, 2014ko azaroaren 3an

Foru parlamentaria: Víctor Rubio Martínez

